

Justizia Sozioanbientala Euskadiko eskoletako hezkuntza-sistemaren Ingurumen-Hezkuntzan



Kordinatzailea:

Libe Narvarte Eguiluz, hezkuntza-teknikaria, Alboan Fundazioa.

Kolaboratzaileak:

Eduardo Ochoa de Aspuru Gutiérrez, irakaslea, ingurumen-hezkuntzako aditua, eta Alboan Fundazioaren hezkuntza-taldeko boluntarioa.

Víctor Gutiérrez Robles, Alboan Fundazioaren eragin-taldeko eta hezkuntza-taldeko boluntarioa.

Eskerrak:

Alboan-etik eskerrak eman nahi dizkiegu ikerketa hau egitea ahalbidetu duten pertsona eta erakunde guztiei.

Lehenik eta behin, eskerrik asko José Manuel Gutiérrez Bastida, Mikel Ballesteros García, Mónica Fernández Vidal, Eduardo Ochoa de Aspuru Gutiérrez, Adelaida González Menéndez, Xenia Lacalzada, Álex Pérez Márquez eta Nerea Borrachero Lazcano. Zuen ezagutza eta testigantzarik gabe, ezin izango genituzkeen dokumentu honetako edukirik gaurkotuenak eta egokienak eskuratu. Esker mila zuen konpromisoagatik, eskuzabaltasunagatik eta gardentasunagatik.

Gure esker ona ere bai Irma Lucía Mariño Vargas, José Alberto Romero Blanco eta Mónica Esther Arroyo Valda de Chávez, Fe y Alegriaren Ekologia Integrala eta Panamazonia ekimenaren kide estimatuei. Eskerrik asko prozesuan lagundu, testua berrikusi, eta dena konektatuta dagoela gogorarazten digun begirada amazonikoa gurekin partekatzeagatik.

Eskerrik asko Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostiako Udalari, "Ingurumenaren zaintzatik justizia sozioanbientalaren sustapenera igaroz" bezalako proiektuak finantzatu eta ahalbidetzeagatik.

Eta, beti bezala, gure esker ona Alboanen taldeari, bereziki dokumentua berrikusi eta ekarpenak egin dizkioten lankide guztiei.

www.alboan.org

www.edukalboan.org



Dokumentu hau Creative Commons lizentzia baten pean dago. Obra hau askatasunez kopia, banatu eta jendaurrean komunikatu ahal izango da, betiere egiletza aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Obra honetatik eratorritako obra bat ezin da aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Aurkibidea

Sarrera eta metodologia	04
1. Ingurumen-hezkuntza eta justizia sozioambientala: zenbait kontzeptu	07
2. Ingurumen-hezkuntza Euskadin. Bilakaera eta egungo egoera.	23
a. Ibilbide historikoa eta bilakaera (1980-2023)	24
b. Ingurumen-hezkuntzaren gaur egungo egoera Euskadin (2023tik gaurdaino)	33
3. Ondorioak eta gomendioak	41
I. eranskina: elkarriketatutako pertsonak	51
II. eranskina: elkarriketen eredu orokorra	53
III. eranskina: dokumentuan erabilitako sigla eta akronimoak	55

Sarrera

Dokumentu honek *“Justizia sozioanbientala Euskadiko eskoletako hezkuntza-sistemaren ingurumen-hezkuntzan”* ikerketaren emaitza nagusiak aurkezten ditu. Azterlan hori *“Amazonia II: ingurumenaren zaintzatik justizia sozioanbientalaren sustapenera”* proiektuaren barruan kokatzen da. Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak finantzatutako proiektu bat da. Izenburuak berak argi eta garbi adierazten du proiektuaren asmoa, eta oso ondo laburbiltzen du **ikerketaren helburua** zein den: identifikatzea funtsezko zer elementuk deskribatzen duten justizia sozioanbientalerako hezkuntzaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-hezkuntzaren esparruan, eta zer gomendio espezifiko eman lekizkien esparru horretako arduradun politiko eta teknikoei, hezkuntza-arlo horretan mundu osokoa eta tokikoa, giza eskubideak, ekofeminismoa eta kulturartekotasuna sartuko dituzten ikuspegiak ekartzeko aldera.

Alboanen, justizia sozioanbientala eta genero-berdintasuna sustatuko dituzten munduko herritarrak eraikitzeke lan egiten dugu: esaldi horrekin hasten da gure misioa. Eta honela jarraitzen du:

“Beste pertsona eta erakunde batzuekin batera, tokian-tokian eta mundu osoan bazterkeria eragiten duten egiturak eraldatu nahi ditugu, eta harreman sozial eta ekonomiko berriak sustatu. Elkarlanaren bidez garatzen dugu gure misioa, eta hainbat sare eta plataformatan parte hartzen dugu, bereziki, tokian-tokian nahiz nazioartean Jesusen Lagundiari lotuta daudenetan”¹.


Justizia sozioanbientala da Alboanen ekintzaren ardatzgunean dauden bost kausa justuetako bat. Besteak hezkuntzarako eskubidea, behartutako migrazioen aurkako borroka, genero-ekitatea eta herritartasuna eta parte-hartzea sustatzea dira.

Garapenerako nazioarteko lankidetzako erakunde gisa, tokiko erakundeekin batera gauzatzen dugu gure lanaren zati handi bat, lankidetzako proiektuak ditugun 22 herrialdeetan.

Paulo Freireren esaldi ezagunak adierazten duen bezala, *hezkuntzak ez du mundua aldatzen: mundua aldatzen duten pertsonak aldatzen ditu*. Horregatik, nazioarteko lankidetzaren esparruan jarduteaz gain, **Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen (HGHE)²** aldeko apustu sendoa egiten dugu. Munduko herritar izateko hezkuntza eraldatzaileak esan nahi du ingurune hurbiletik haratago joan behar dela, eta munduaren ikuspegi zabala izan, tokian tokiko ekintzek planetako beste leku batzuetan ondorioak

¹ <https://www.alboan.org/es/sobre-alboan>

² Alboanek termino hori erabiltzen du gizartea eraldatzeko hezkuntza izendatzeko. Ikus *“Ser y Saber, perfil docente para el Desarrollo Sostenible y la Ciudadanía Global”* dokumentua, 4.7 Mugimenduaren webgunean eskuragarri: <https://4punto7.org/>



Justizia sozioanbientala da Alboanen ekintzaren ardatzgunean dauden bost kausa justuetako bat. Besteak hezkuntzarako eskubidea, behartutako migrazioen aurkako borroka, genero-ekitatea eta herritartasuna eta parte-hartzea sustatzea dira.

dituztela ulertuta. Errealitatea ezagutu, pentsamendu kritikoa eta enpatia izan, eta errealtatean esku hartzeko eta berau eraldatzeko gai izatea eskatzen du.³ Bizi arteko ikaskuntza-prozesu bat da, eta hezkuntza formala, ez-formala eta informala hartzen ditu barnean. **Dokumentu hau, batez ere, eskola aldiko hezkuntza formalari buruzkoa da,** ikerketaren izenburuak berak adierazten duen bezala.

Justizia sozioanbientalaren kausari eta Alboanek hezkuntza formalean egiten duen lanari lotuta egoteaz gain, **Amazonia gara: defenda dezagun guztion etxea** kanpainarekin zerikusia du dokumentu horrek. Kanpainaren helburua herritarrak mobilizatzea da, Amazonia eta han bizi diren herriak babesteko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko. Ikuspegi ekofeminista batetik, gatazka ekosozialen eta ekoizpen- eta kontsumo-molde globalen arteko lotura ezagutarazi nahi du kanpainak, mundu justuago, ekitatiboago eta jasangarriago baten alde mobilizatuko diren herritar kritikoak sustatzeko. Hemen aurkezten dugun ikerketak ez du alde batera uzten lotura hori eta, euskal hezkuntza-sistemari erreparatu arren, ahaleginak egiten ditu begirada “amazoniarra” ere ekartzeko. Horretarako, Fe y Alegríaren “Ecología Integral y Panamazonia” ekimenarekin dugun aliantzaz baliatu gara. Haien ohar eta galderek dokumentu honetako analisisia eta gomendioak elikatu dituzte.

Guztia dago lotuta, dio aita santuak guztion etxea zaintzeari buruzko Laudato Si’ entziklikan. Ea dokumentu honek loturak indartzen ere laguntzen duen, hezkuntzaren esparruan aritzen garen pertsona eta erakunde gehiagok elkarrekin egin dezagun aurrera, gizarte-eraldaketa justu eta benetako baterantz.

³ Alboanen Hezkuntza Estrategia Herritartasun Globalerako eta Gizartea Eraldatzeko. Hemen eskuratu daiteke: <https://www.alboan.org/es/node/2542>

Metodologia

Ikerketa hau azterlan kualitatibo bat da, esploratzeko asmozkoa. Ikerketa lau fasetan egin da:

1. Lehenengoan, ingurumen-hezkuntzak nazioartean eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) izan duen ibilbide historikoari eta bilakaerari buruzko azterketa dokumentala egin da. Nagusiki, administrazio publikoaren eta akademiaren eremuko bibliografia berrikusiz egin da. Bibliografian eta oin-oharretan daude erabilitako erreferentzia nagusiak.
2. Bigarren fasean, gai horri buruzko elkarrizketa sakonak egin zaizkie funtsezko eta erreferentziazko eragileei. Horretarako, gidoi bat prestatu eta sei elkarrizketa egin dira. Informazio hori zehatz-mehatz jaso da 1. eranskinean (galderen eredia eta elkarrizketatutako pertsonak).
3. Hirugarren zatian, iturrien arteko azterketa konparatiboa egin da, dokumentuak, elkarrizketak eta askotariko ahotsak erkatuz. Triangulatze une horretatik atera da dokumentu honen argumentazio ildoak.
4. Proiektu honetan, garrantzitsuena da lortutako emaitzak lagungarriak izatea ikuspegi ekosozialak txertatzeko prozesuetan parte hartzen duten eragileek fenomeno horiek hobeto uler ditzaten. Azken helburua proiektu horien aplikazioa hobetzea da, eta haien oinarri diren idealak hobeto uler daitezela. Horregatik guztiagatik, laugarren eta azken fasean, proiektuaren aurreko urratsetan lortutako emaitzak destilatzen saiatu gara, zenbait ikaskuntza eta gomendio praktiko definitzeko, hezkuntzaren arloko esku-hartze eta politika ekosozialak diseinatzeari dagokionez. Gomendioen barruan, tokiko eta mundu osoko ikuspegi, giza eskubideak, ekofeminismoa, parte-hartze soziala eta kulturartekotasuna txertatzea sustatzen duten elementuak sartuko dira.

1. Ingurumen-hezkuntza eta justizia sozioambientala: kontzeptu batzuk

“Zer da ingurumen-hezkuntza?” galderari erantzutea oso zeregin konplexua izan daiteke kontuan hartzen badira mugimendu pedagogiko horrek tokian-tokian eta unean-unean hartu dituen forma guztiak. Hezkuntza mugimendu hori ez zen ustekabea agertu: ingurumenaren ikuspegia irakaskuntzan sartzeak zuzeneko lotura du mendebaldeko garapen sozioekonomikoko ereduaren gehiegikeria eta gabeziekin.

Nazioarteko herrialde eta eragile gehienek kezka da ingurumen-krisia, eta hortaz argi dago oztopo nazional eta kulturalak gainditzeko gai dela. Era berean, mundu osoan onartzen da hezkuntzak zeresan handia duela gizakiaren eta naturaren arteko harremana hobetzeko. Hala ere, ez dirudi ingurumen-hezkuntzako proiektuen garapenean parte hartzen duten eragileek diskurtso kohesionatua dutenik gai horren inguruan eta, askotan, zeinek bere proposamenak aurkezten ditu hezkuntzan ingurumen-ikuspegia praktikan jartzeko.

Hori horrela, ingurumen-hezkuntzaz ari garenean, badira hainbat termino eta agenda, halakotzat hartu arren baliokide ez direnak. Gainera, korrante horren erabilera kontzeptuala eta jardunbideak era askotako eremuetatik sustatzen dira, eta elkarren osagarri dira batzuetan, baina elkarren aurkako bestetan: adibidez, eremu akademikoa, nazioarteko erakundeak, lankidetzaren mundua (gobernuarena eta deszentralizatua), gizarte zibila, etab.

Horrekin batera, ingurugiro, gizarte eta ekonomia aldakorretara egokitu behar izan dira ingurumen-proposamenak, unean unera eta tokian tokira hobeto moldatzen diren erantzunak emateko. Egia da Nazio Batuen Erakundearen eta nazioarteko beste organo batzuen jarraibideek asko markatzen dituztela ingurumen-hezkuntzako plangintzak, baina, nonezartzen diren, herrialde edo lurralde horretako desberdintasun eta berezitasunetara egokitzen dira.

Mundu osoan onartzen da hezkuntzak zeresan handia duela gizakiaren eta naturaren arteko harremana hobetzeko

Ingurumen-hezkuntzaren ibilbidea lotuta dago gizartean eta gizarteetatik gauzatzen diren joera eta indar-harremanekin. Hala ere, nazioarteko konferentzia handietatik sortzen diren proposamenek ez diete beti erantzuten ingurumen-hezkuntzako beste eragile batzuen itzaropenei eta jarrerei, eta, beraz, eztabaidak eta polemikak daude ematen dituzten kontzeptu eta jardunbideen inguruan. Ezagutu eta adierazi beharreko interes ugari daudenez⁴, ikerketa honen esparruan gure jarrera zein den azaldu nahi dugu atal honetan, eta orobat argitu zer esan nahi dugun Euskadiko ingurumen-hezkuntzan justizia sozioanbientala sartzeaz ari garenean.

Lehenik eta behin, azaldu behar da hurrengo paragrafoetako azterketa ez dela erabat xehea. Atal honen helburua ikerketa honen ikuspegia adieraztea da, ez termino bakoitzaren ibilbide edo azterketa zehatza egitea. Badakigu landuko dugun eremu kontzeptuala oso mamitsua dela, konnotazio eta konplexutasun ugari dituela, etab. Hurrengo orrialdeetan, ez dira sakon aztertuko. Baina irakurleak jakin behar du, garrantzitsua baita, terminoen erabilerari dagokionez zer hartu kontuan.

Bigarrenik, garrantzitsua da adieraztea, ibilbide luzeagoa eta aitorpen ofizial handiagoa duten kontzeptuei dagokienez (ingurumen-hezkuntza, garapen jasangarrirako hezkuntza, jasangarritasunerako hezkuntza), nazioartean sortu eta, hortik, nazioetara eta, EAEn bezala, nazioz azpiko mailetara zabaldu diren ikuspegieta oinarrituko dela azterlan hau. Ez dugu ahazten ingurumen-hezkuntzari ekarpen aberasgarria egin diola gizarte zibil antolatua mugimendu paralelo batek. Dokumentazio ofizialean ez dira beti jaso haren proposamenak⁵, baina, kontsiderazio polemikoak daudenean, aintzat hartzen da mugimendu horren kritika alde batera edo bestera egiteko garaian. Kasu bakoitzean, dokumentu honetan zer aldetara jotzen den adieraziko dugu.

Hirugarrenik, azaldu behar da, justizia sozioanbientala eta hezkuntza ekosoziala kontzeptuen kasuan, ikuspegi horiek markatzen dutenez zer jokaleku lortu nahi dugun erakunde gisa, guk aintzat hartuko ditugun definizioek bestelako ibilbide bat dutela. Gizarte zibilaren ekarpenetatik eta, kasu batzuetan, elizatik datoz, eta hortik elikatuko gara ikerketa honetan kokatzeko orduan.

Berriro diogu: atal honen helburua da argitzea nola ikusten duen Alboanek kontzeptu bakoitza, eta nola ulertuko dugun justizia sozioanbientala ingurumen-hezkuntzaren testuinguruan txertatzearen esanahia. Horretarako, jarraian, adieraziko dugu nola kokatzen eta erlazionatzen ditugun kontzeptu hauek dokumentu honetan:

4 Orellana, Isabel; Fauteux, Stéphane "La educación ambiental a través de los grandes momentos de su historia". Hemen eskuratu daiteke: https://www.ecominga.uqam.ca/PDF/BIBLIOGRAPHIE/GUIDE_LECTURE_3/1/1.Orellana_y_Fauteux.pdf

5 Ibid.

- a. Ingurumen-hezkuntza
- b. Garapen jasangarrirako hezkuntza
- c. Jasangarritasunerako hezkuntza
- d. Justizia sozioanbientala
- e. Hezkuntza ekosoziala
- f. Herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea

a. Ingurumen-hezkuntza

Egile gehienen ustez, joan den mendeko 60ko hamarkadan daude ingurumen-hezkuntzaren hastapenak. Orduan, lehen aldiz, sektore ekonomiko, politiko eta sozial batzuek –estatubatuarrak aurrenik eta nazioartekoak ondoren– giza jardueren ingurumen-inpaktuen berri eman zioten iritzi publikoari. Aurreikuspenak katastrofikoak ziren, gizateriaren etorkizuna kolokan jartzeko modukoak.

“Ingurumen-hezkuntza” orduan definitu zen lehen aldiz, hain zuzen, nazioarteko tirabirek eta gobernarienekin eta gizarte-ereduarekin gero eta kritikoagoak ziren herritarren protestek markatutako aldi batean. Hamarkada horretan bor-borreetan zeuden mugimendu feministaren bigarren olatua, Pragako udaberria, 68ko maiatza, eta beste. Izan ere, gerraostean areagotu egin zen industria-iraultzan oinarritutako garapen-eredua, kontsumo-gizartea sustatu baitzen krisi ekonomikoari aurre egiteko, eta agerian geratzen hasia zen oso ondorio kaltegarriak zituela ingurumenean eta gizartean. Mugimendu sozial eta akademikoek eredu ekonomikoaren ondoriozko kalteez ohartarazi zuten, eta aldaketak proposatu zituzten, ongi jakinik, halaber, ingurumen-krisia mugaz gaindiko zerbait zela eta ezin zitzaiola banako estatuen esparrutik soilik heldu. 1969an, Woodstock ospatu eta lehenengo gizakiak Ilargia zapaldu zuen urtean, ingurumen-hezkuntzaren helburuen lehen definizioa formulatu zen Massachusettsen:

“Ingurumen-hezkuntzaren helburua da herritarrek ingurune biofisikoaren eta hari lotutako arazoek berri izatea, gai horiek konpontzeko nola lagundu daitekeen jakitea eta konponbidean lan egiteko motibatuta egotea”.

1970eko apirilaren 22an Ama Lurraren Munduko Eguna ospatu zen, eta harrezkero Nazio Batuen Erakundeak ere bere egin du ospakizun hori. Antzeko efemeride batzuk ez bezala, hala nola Uraren Eguna edo Basoen Eguna, ibilbide lasaiagoa duten konferentzia batzuetatik baitatoz, Lurraren Mundu Eguna ikasle protesta masibo batek eta hainbat mobilizaziok sortu zuten. Haren aurrekariak 1968ra garamatza. Urte hartan, Estatu Batuetako Osasun Publikoko Zerbitzuak, Morton Hilbert irakaslearekin batera, Giza Ekologiaren Sinposioa antolatu zuen:

⁶ Stapp, 1969, José Manuel Gutiérrez Bastidak aipatua, artikulua honetan: “Stapp, W.B. (1969): The Concept of Environmental Education”. Hemen eskuratu daiteke: <https://eaxxi.blogspot.com/2012/06/stapp-wb-1969-concept-of-environmental.html>

ingurumenari buruzko konferentzia bat, herrialde osoko ikasleek ingurumenaren arloko adituei entzuteko, biodibertsitatearen narriadurak giza osasunean zer ondorio zituen azaltzen. Batzarrak aparteko arrakasta izan zuen, eta Hilbertek eta ikasle komunitate batzuek lehenengo Lurraren Egunaren planteamendua garatzen eman zituzten hurrengo bi urteak. Mobilizazioa erabat arrakastatsua izan zen: 2.000 unibertsitatek eta lehen nahiz bigarren hezkuntzako 10.000 ikastetxek baino gehiagok parte hartu zuten, baita ehunka komunitatek ere⁷.

1972an, Erromako Klubarentzat egindako Meadows txostena argitaratu zen, hazkundearen mugei buruzkoa. Adierazten zuenez, *“Egungo joerek berdin jarraitzen badute, munduko populazioa, industrializazioa, ingurumen kutsadura eta elikagaien ekoizpena handitzen eta baliabideak gero eta gehiago agortzen, planeta hau datozen ehun urteetan iritsiko da bere hazkundearen mugetara”*. Aski litekeena izango da, orduan, hala biztanleria nola ahalmen industrial bat-batean murriztea, inolako kontrolik gabe... *“Zenbat eta gehiago hurbildu planetaren muga materialetara, orduan eta zailagoa izango da arazoari ekitea”*. Kolapsoaren konponbidea «zero hazkunde» edo «egoera geldikorra» izan litekeela adierazten zen; hau da, ekonomiaren eta biztanleriaren hazkunde esponentziala gelditzea. Hartara, hazkunde ekonomikoak ez lituzke murriztuko geratzen diren baliabide naturalak, eta denboran gehiago iraun ahal izango lukete⁸.

Ingurumen-hezkuntza sistema ekonomikoaren aurkako kritika gogor baten esparruan sortu zen hasieran, euskarri akademiko sendo batean oinarrituta, eta, aldi berean, gizarte zibilarekin eta garaiko gizarte-mugimenduekin lotuta (bakearen aldekoak, antinuklearrak, eskubide zibilen aldekoak, eta abar).

7 Hemen kontsultatu da: <https://www.nationalgeographic.com.es/medio-ambiente/por-que-dia-internacional-tierra-se-celebra-22-abril-19805>

8 1992an, txostena eguneratu eta bertsio berri bat argitaratu zen, “hazkundearen mugetatik harago” izenekoa. Ordutik bildutako datuetan oinarrituta, planteatzen zuen gizateriak jada gainditua zuela planetaren karga-ahalmena, hots, populazioa mantentzeko gaitasuna. 2004an, aurreko bi bertsioen bertsio eguneratu eta osoa agertu zen, “Hazkundearen mugak: 30 urte geroago” izenburupean. Honako hau adierazten du: *“baliabide mugatuak dituen planeta batean, ezin da biztanleriaren, ekonomiaren eta industriaren hazkunde mugagaberi egori”*. 2012an, *Les limites à la croissance (dans un monde fini)* liburua argitaratu zen frantsesez, Hazkundearen mugak liburua azken edizioa. Edizio horretan, dagoeneko muga fisikoetara iritsi gairela dioten datu fidagarriak dituzte egileek; hainbat alorretatik datoz, baina klimatik eta biosferatik bereziki.

Hala, ikusten dugu ingurumen-hezkuntza sistema ekonomikoaren aurkako kritika gogor baten esparruan sortu zela hasieran, euskarri akademiko sendo batean

oinarrituta, eta, aldi berean, gizarte zibilarekin eta garaiko gizarte-mugimenduekin lotuta (bakearen aldekoak, antinuklearrak, eskubide zibilen aldekoak, eta abar).

Urte batzuk geroago, 1975ean, Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuen 1972ko Konferentzia⁹ egin zen, ingurumenari buruzko munduko lehena. Konferentziaren 96. gomendioari erantzunez, Ingurumen Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Mintegia antolatu zuten Unescok eta Belgradeko Unibertsitatearen Nazioarteko Ikasketen Zentroak. *“Ingurumen-hezkuntzarako egitura globala”* azpiztitulua zuen konferentziak, eta ingurumen-kontzientzia hezkuntzan sartzeari zuzentzen zuen helburu. Gutunaren hasierako diagnostikoak honako hau dio:

“Gure belaunaldia aurrez inoiz ezagutu gabeko hazkunde eta aurrerapen teknologiko baten lekuko izan da, eta, hainbati onurak ekarri dizkion arren, gizartean eta ingurumenean ondorio larriak ere izan ditu aldi berean. Aberatsen eta pobreen arteko desberdintasuna areagotu da, hala nazioen artean nola nazioen barruan; eta nabaria da mundu osoko ingurune fisikoa gero eta gehiago ari dela hondatzen, modu askotara. Nagusiki herrialde kopuru txiki batek sortu badu ere, egoera horrek gizateria osoari eragiten dio”¹⁰.

Gutunak helburu hau ezartzen du: “munduko biztanleria hezte, ingurumenaz eta hari lotutako arazoez jabetu eta kezkatu dadin, eta banaka nahiz taldean lan egiteko ezagutzak, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa izan ditzan, dauden arazoetarako konponbideak eta arazo berriei aurrea hartzeko moduak bilatzeko”¹¹.

Ingurumen-hezkuntzaren sorrerako dokumentu ofizialei jarraituz gero, ikusiko dugu kontzeptu horrek hasieratik hartu duela ikuspegi sozioanbientala bere definizio eta proposamenetan. Ingurumenaren eta gizartearen problematika lotzen ditu, tokiko eta munduko ekitate faltaren gaineko begirada bat du, eta, problematika horien jabe, konponbideak bilatzeko eta jartzeko konpromisoa izango duten herritarrak hezi nahi ditu.

UNESCOk antolatutako Belgradeko adituen mintegiaren ondotik, Tbilisiko (1977) eta Moskuko (1987) nazioarteko konferentziak etorri ziren. Salonikako Nazioarteko Konferentzia (1997), norabidea aldatu eta garapen jasangarriaren ikuspegi antz jo zen (hurrengo puntuan ikusiko dugu)¹².

9 Ikus Nazio Batuen webgunean “Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia, 1972ko ekainaren 5etik 16ra, Stockholm” <https://www.un.org/es/conferences/environment/stockholm1972>

10 Belgradeko Gutuna, Ingurumen Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Mintegia (Belgrad, 1975eko urriaren 13-22), 1.or. Hemen eskuratu daiteke: <https://www.manekenk.org.ar/wp-content/uploads/2016/01/belgrado01.pdf>

11Ibid. 3. or.

12 Orellana, Isabel; Fauteux, Stéphane “La educación ambiental a través de los grandes momentos de su historia”. Hemen eskuratu daiteke: https://www.ecominga.uqam.ca/PDF/BIBLIOGRAPHIE/GUIDE_Lecture_3/1/1.Orellana_y_Fauteux.pdf

Hala ere, ingurumen-hezkuntza ez da polemikarik gabea eta, definizio guztietan ikuspegi sozioanbientala beti agertu izan den arren¹³, hasieratik diferentziak egon dira ikuspegi eta jarrera teorikoen eta metodologikoen artean¹⁴. Ez da harritzekoa, beraz, halako “ideia orokortu” bat egotea, ingurumen-hezkuntzari ikuspegi nagusiki naturalistikoa esleitzen diona.

Dokumentu honetan, kontzeptu aterkitzat hartzen dugu ingurumen-hezkuntza: ingurune naturala zaintzeko kontzienteki antolatu eta bideratzen diren ekintza hezigarri guztiak hartzen ditu azpian. Ingurumen-hezkuntzak sortu zenetik barneratu duen arren ikuspegi sozioanbientala, praktikan, naturaren zaintza sustatzeagatik bereizi izan da beste proposamen batzuetatik. Ikerketa honetan, uste dugu jorratuko ditugun kontzeptu guztiak daudela ingurumen-hezkuntzarekin lotuta, eta gehienak (garapen jasangarrirako hezkuntza, jasangarritasunerako hezkuntza, hezkuntza ekosoziala eta justizia sozioanbientalerako hezkuntza) aterki horren azpian sartzen diren ikuspegi zehatzak direla.

b. Garapen jasangarrirako hezkuntza

Aurreko puntuan adierazi dugun bezala, 1975ean Belgradeko Konferentzia egin zen, eta plataforma horretatik abiarazi zen Ingurumen Hezkuntzako Nazioarteko Programa, UNESCOk eta NBI Pek elkarrekin eginga. Programa 1995ean eten zen, aurrekontu-murrizketen ondorioz batik bat, baina UNESCOk zenbait ekintza sustatzen jarraitu zuen: curriculum berrikusi eta hezkuntza-materialak prestatzekoak, eta irakasleak trebatu eta tokiko komunitateak gai espezifikoetara buruz sentsibilizatzekoak. 2002an, Johannesburgeko Konferentzian, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkada jarri zen martxan¹⁵. Mugarri horrek nabarmen aldatu zuen ikuspegia: “ingurumen-hezkuntza” zena “garapen jasangarrirako hezkuntza” bihurtu zen. Nola izan zen kontzeptu-aldaketa, nola bihurtu zen “ingurumen-hezkuntza” “garapen jasangarrirako hezkuntza”? Zer ondorio izan zituen aldaketak?¹⁶

“Garapen jasangarria” kontzeptua Nazio Batuen 1987ko Batzarrean legitimatu zen, ingurumenaren eta garapenaren Munduko Batzordearen txostena baliozkotu zenean

13 José Manuel Gutiérrez Bastidak honako hau adierazten zuen bere elkarrizketan:

“Bakarka egin nuen lehen liburua, asko kezkatzen ninduen ingurumenaren gaiak, zer esan nahi genuen ingurumenarekin. Ingurumenari buruzko 150 definizio baino gehiago aurkitu nituen. Eta aurkitu ditudan horietako bakar batek ere ez du naturara mugatzen ingurumena. Guztiek gehitzen dute giza ingurumena, modu batera edo bestera, beti”.

14 González Gaudiano, Edgardo Javier (2006) “Configuración y significado. Educación para el Desarrollo Sustentable”, <https://www.redalyc.org/pdf/607/60715248010.pdf>

15 Bertero, Mario (2006) “Decenio para la Educación de Desarrollo Sostenible” (konferentzia). Hemen eskuratu daiteke: https://unetxea.org/dokumentuak/Conferencia_Bertero.pdf

16 Erreferentzia gisa, ikus:

- González Gaudiano, E. G., eta Arias Ortega, M. Á. El programa internacional de Educación Ambiental: Institucionalización y hegemonía. Balance y Perspectivas, 57.
- Gutiérrez Bastida, J.M. (2013). De rerum natura. Hitos para otra historia de la educación ambiental. Bubok argitaletxea. Madril.

(*Brundtland txosten*¹⁷ ere esaten zaio). Txostenak ingurumena eta garapena lotzen ditu, eta kontzeptualki “garapen jasangarri” gisa adierazten du lotura hori, honela definituz: “*gaur egungo beharrei erantzuten dien garapen bat, etorkizuneko belaunaldiari beren beharrak asetzeko ahalmena galarazi gabe*”¹⁸.

Ondoren, 1991n, Natura Zaintzeko Nazioarteko Batasunak (IUCN), Nazio Batuen Ingurumen Programak (NBIP) eta Naturarentzako Mundu Funtzak (WWF) “*Lurra zaintzea*”¹⁹ txostena argitaratu zuten. Honela definitzen du garapen jasangarria: “*giza bizitzaren kalitatea hobetzea, eusten dioten ekosistemen karga-ahalmena gainditu gabe*”²⁰. Dokumentu horren babesle eta laguntzaile izandako erakundeei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu garapenerako lankidetzako gobernu-agentzia eta garapen-banku askok parte hartu zutela²¹.

Nazio Batuetan, beraz, garapen jasangarrirako hezkuntza kontzeptuan hezurmamitu zen aurretiaz ingurumen-hezkuntza zena. Kontzeptu hori 170 herrialde baino gehiagotako ordezkariak berretsi zuten 1992an, Rio de Janeiron bildurik. Agenda 21 eta Rioko Adierazpena onarturik, mundu-mailako lankidetzaren baterako konpromisoa adierazi zuten, planetako ekosistemaren osotasuna zaindu, babestu eta lehengoratzeko aldera²². 2015ean, garapen jasangarrirako ikuspegiaren eta plangintzaren zehaztapenean aurrera egin zuten NBEko estatu kideek. Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda sustatu, eta 2030erako garapen jasangarriko 17 helburuak eta haien jomugak bildu zituzten hartan. Nazioartean, UNESCO da oraindik ingurumen-hezkuntzako agendaren burua, baina garapen jasangarrirako hezkuntzaren aterkipean dihardu gaur egun.

Garapen jasangarria hiru faktore nagusi banaezinetan oinarritzen da: gizartea, ekonomia eta ingurumena²³. NBEren arabera, garapen jasangarria:

“Malabarismo bat da nolabait. Airean hiru bola mantendu behar dira aldi berean: hazkunde ekonomikoa, gizarteratzea eta ingurumenaren babesa. Bat edo bi lurrera erortzen badira, akabo funtzioa”²⁴.

17 *Brundtland txostena* gaztelaniaz eskuratu daiteke, hemen: https://www.ecominga.uqam.ca/PDF/BIBLIOGRAPHIE/GUIDE_Lecture_1/CMMAD-Informe-Comision-Brundtland-sobre-Medio-Ambiente-Desarrollo.pdf

18 Ibid 23. or.

19 *Lurra zaintzea* txostena hemen eskuratu daiteke: <https://portals.iucn.org/library/sites/library/files/documents/CFE-003-Es.pdf>

20 https://unetxea.org/dokumentuak/Conferencia_Bertero.pdf

21 Ikus “*Lurra zaintzea*” txostenaren 3. orria, hemen eskuragarri: <https://portals.iucn.org/library/sites/library/files/documents/CFE-003-Es.pdf>

22 Bertero, Mario (2006) op. cit.

23 Nazio Batuek, “¿En qué Consiste el Desarrollo Sostenible?”, garapen jasangarrirako helburuei buruzko web orria: <https://portals.iucn.org/library/sites/library/files/documents/CFE-003-Es.pdf>

24 Ibid.

Zenbaiten ustez, ingurumen-hezkuntzaren eboluzio aurreratuagoa da garapen jasangarrirako hezkuntza, bertsio nabarmenki ekosozialagoa, argi eta garbi azaltzen baitu ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren arteko lotura, baina badira hazkundearen eredu ekonomikoa babestera bideratutako ikuspegi bat dela uste dutenak ere.

Zenbaiten ustez, ingurumen-hezkuntzaren eboluzio aurreratuagoa da garapen jasangarrirako hezkuntza, bertsio nabarmenki ekosozialagoa, argi eta garbi azaltzen baitu ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren arteko lotura, baina badira hazkundearen eredu ekonomikoa babestera bideratutako ikuspegi bat dela uste dutenak ere²⁵. Dokumentu honen esparruan, gure iritzia da ingurumen-hezkuntzaren ikuspegi zehatz bat dela garapen jasangarrirako hezkuntza eta oraindik hazkunde ekonomikoa dela haren funtsezko helburua, jasangarritasun-parametroei erantzun behar badie ere. Alde horretatik, garapen jasangarrirako hezkuntzak barne hartzen du justizia sozioanbientalaren ikuspegia, baina ikuspuntu jakin batetik: sistema ekonomiko hazkor bat mantentzearena, nahiz eta aberastasuna ekitatez banatzeko eta ingurumen-jasangarritasuneko irizpideak errespetatuz. Sistema errotik aldatzera baino gehiago, oreka batzuk mantentzera bideratutako ikuspegi bat da²⁶.

c. Jasangarritasunerako hezkuntza

Garapenjasangarriakontzeptuakzenbaitkritikajaso ditu hezkuntzaren mundutik. Aurreko puntuan aipatu dugun bezala, haietako bat hazkunde ekonomikoaren ideiarekin daukan lotura da, haren arabera garapen ekonomikoaren mende baitago ingurumenarekiko harremana: alderdi etikoan, ingurugiroaren karga-ahalmena ez gainditzea da kontua, gizarte mendebaldetarren egungo eta etorkizuneko beharrak asetzen dituen bitartean (behar horiek auzitan jarri gabe). Kritika horiei erantzuteko, adierazpen berri bat sortu zen: etorkizun jasangarrirako hezkuntza, jasangarritasunerako hezkuntza ere deitua²⁷.

25 Eztabaida horren adibide interesgarri bat Lucie Sauvéren eta John Huckleren iritzi-trukea da, *Canadian Journal of Environmental Education* aldizkariaren zenbait artikulutan jasoa (4. zk., 1999ko uda). Hemen eskuratu daiteke (ingelesez): <https://cjee.lakeheadu.ca/issue/view/37>

26 Naredo, José Manuel (1996) "Sobre el origen, uso y contenido del término sostenible", *La construcción de la ciudad sostenible*, Herri Lan, Garraio eta Ingurumen Ministerioa, Madril. Hemen eskuratu daiteke: <http://habitat.aq.upm.es/cs/p2/a004.html>

27 Sauvé, Lucie (1999) "La educación ambiental entre la modernidad y la posmodernidad: En busca de un marco de referencia educativo integrador", *Tópicos*, 1(2), 1999ko abuztua, 7-27 or. Hemen eskuratu daiteke: https://www.ecominga.uqam.ca/PDF/BIBLIOGRAPHIE/GUIDE_Lecture_1/5/2.Sauve.pdf

EAEko egungo hezkuntza-proposamena “jasangarritasunerako hezkuntza” kontzeptuan bildu da.

Nahiz eta batzuen iritzia izan berdin jarraitzeko etiketa berri bat besterik ez dela etorkizun jasangarria kontzeptua²⁸, badira ingurumen-hezkuntzaren kontzeptuaren aurrerapentzat jotzen dutenak ere²⁹. Dokumentu honetan, kontzeptu horrek ikuspegi bat baino gehiago bil dezakeela joko dugu: bai garapen jasangarriarena, eta baita hazkunde ekonomikoaren eredua zalantzan jartzea beharrezkotzat jotzen duten kritiken ere. Beraz, azterlan honetan ingurumen-hezkuntzaren kontzeptu sozioanbientaltzat joko dugu, argi eta garbi uztartzen dituelako gizartearen eta ingurumenaren alderdiak. Hala, nolabaiteko anbiguitasuna ahalbidetzen du, kontzeptualki “ezkondu” beharrik ez izateko. Jasangarritasunerako hezkuntzaren ikuspegitik, ingurumen-hezkuntzaren ardatza gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren etorkizun jasangarria ziurtatzea da. Dena dela, ñabardura garrantzitsu bat du garapen jasangarriko hezkuntzaren aldean; izan ere, “garapen” (ekonomikoa) hitzak ez du toki zentrala hartzen eta, horrenbestez, bestelako gogoeta bat egin daiteke osagaien arteko orekaren inguruan. Zentzu horretan, hainbat joera batzeko bidea ematen duen kontzeptu “zubi” bat da.

Hurrengo ataletan ikusiko dugun bezala, EAEko egungo hezkuntza-proposamena “jasangarritasunerako hezkuntza” kontzeptuan bildu da. Gaur egun, *Jasangarritasunerako Hezkuntzaren Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Estrategia* da arlo horretako hezkuntza-politiken esparru-dokumentua, 2018an argitaratua.

d. Hezkuntza ekosoziala

Nola formulatuta dagoen hartzen badugu kontuan, gizadiarentzat jasangarria den etorkizun baten ideia, funtsean, etika antropozentriko batean dago oinarrituta³⁰. Gizakia jartzen du gauza guztien neurri eta erdigune gisa, eta, beraz, giza ongizatea izango litzateke munduaren funtzionamendua antolatzeko printzipioa. Antropozentrismoa mundu-ikuskerara modernoa da; Erdi Aroko teozentrismoarekiko aurkaritzan sortu zen. Betiere giza interesei edo beharrei erantzuteko gaitasunaren arabera balioesten ditu biosferako

28 Ibid.

29 Huckle, John (1999) “Locating Environmental Education Between Modern Capitalism and posmodern Socialism: A reply to Lucie Sauvé”, *Canadian Journal of Environmental Education*, 4 (1999ko uda). Hemen eskuratu daiteke: https://www.researchgate.net/publication/277112995_Locating_Environmental_Education_Between_Modern_Capitalism_and_Postmodern_Socialism_A_Reply_to_Lucie_Sauve

30 Sauvé, Lucie (1999), *op. cit.*

Naturak ez du giza presentziaren edo ekintzaren beharrik ongi funtzionatzeko.

elementuak³¹. Hezkuntza ekosozialak begirada antropozentrikoa gainditzea proposatzen du, eta bizitzaren zaintza jartzea gure ekintzen erdigunean, baita hezkuntzan ere³².

Zein da bizitzaren sostengua? Biosfera sistema bat da, eta ezin da zati baten gainean jardun besteak ukitu gabe. Lurreko izaki guztiok, gizaki garenok eta ez direnak, naturaren parte gara eta haren mende gaude. Naturak ez du giza presentziaren edo ekintzaren beharrik ongi funtzionatzeko. Hala ere, naturan arrazionalki, nahita eta intentsiboki esku hartzeko gai garenez, sortzen ditugun desoreken erantzule gara.

Gizaki garen aldetik, gorputz ahul eta finituetan bizi gara, eta bizi artean behar ditugu zainketak, batez ere, bizi-zikloaren une jakin batzuetan, hala nola haurtzaroan, zahartzaroan edo gaixo gaudenean. Gainera, gure gorputzak muga fisikoak dituen planeta baten ondasun naturalen menpe daude. Bizitza –gurea barne– zerk sostengatzen duen pentsatzen dugunean, bi mugimenduren aldarrikapen eta borrokak topatuko ditugu zuzenean: batetik, ekologismoarenak eta, bestetik, mugimendu feministak historikoki defendatu izan dituenak zainketen banaketa eta desfeminizazioa lortzeko, giza bizitzaren egunerokoaren eta belaunaldien erreprodukzioan gizarte osoa erantzunkide bihurtu nahian³³. Hala, bada, ekofeminismoaren ekarpenak dira kontzeptu ekosozialaren funtsezko bi printzipio: ekomendekotasuna eta elkar-mendekotasuna.

Hezkuntza ekosozialak esan nahi du etika ekosozialetik hezi behar dela, eta etika ekosozialerako. Esan nahi du zalantzan jarri behar direla nagusi diren kultura-, politika- eta gizarte-ereduak, biosferaren berezko balio bizia dela aitorturik (oro har, eta ez giza bizia soilik), eta gure jarduera egokitu behar dugula, biosferaren eta bizi-sarearen legeak bete ditzan. Esan nahi du zalantzan jarri behar direla oinarriak eta sistema nagusia eraldatu behar dela, erakundeek, politikagintza tradizionalak eta merkatuak aurreikusitako egokitzapen ekonomiko eta politikoetatik haratago³⁴.

Dokumentu honetan, hezkuntza ekosoziala nolako ingurumen-hezkuntza den aipatzean, bokazio guztiz eraldatzailea duela eta justizia sozialean, demokrazia sakontzean eta ingurumen-jasangarritasunean oinarrituta dagoela joko dugu³⁵. Baliokidetzat hartzen

31 Gutiérrez Bastida, José Manuel (2019) "Antropoceno: tiempo para la ética ecosocial y la educación ecociudadana", RES, *Revista de Educación Social*, 28. zk, 2019ko urtarrila-ekaina. Hemen eskuratu daiteke: https://eduso.net/res/wp-content/uploads/2020/06/antropocebo_res_28.pdf

32 Ibid.

33 Yayo Herreroi elkarrizketa. *El Salto* aldizkaria, 76. zk., 2024ko udazkena. Hemen eskuratu daiteke: <https://www.elsaltodiario.com/ecofeminismo/entrevista-yayo-herrero-econom%C3%ADa-tecnolog%C3%ADa-pol%C3%ADtica-sociedad-naturaleza-cuidados>

34 Gutiérrez Bastida, José Manuel (2019), op. cit.

35 FUHEMen hezkuntza ekosozialaren ikuspegia: <https://www.fuhem.es/educacion-ecosocial/>

Ekofeminismoaren ekarpenak dira kontzeptu ekosozialaren funtsezko bi printzipio: ekomendekotasuna eta elkar-mendekotasuna.

ditugu hezkuntza ekosoziala eta justizia sozioanbientalerako hezkuntza. Hurrengo puntuan azalduko dugu zergatik erabiltzen dugun “justizia sozioanbientala” terminoa.

e. Justizia sozioanbientala

Justizia sozioanbientala terminoa Frantzisko aita santuaren Laudato Si’ entziklikatik dator. Laudato Si’-aren abiapuntuko premisa Alboanen darabilgun “sozioanbientala” kontzeptuaren oinarria ere bada:

“Ez daude bi krisi bereiz, bata ingurumenarena eta bestea gizartearena, baizik eta gizarte eta ingurumeneko krisi bakar eta konplexua. Konponbiderako ildoek osoko hurbilketa bat eskatzen dute: pobrezia aurre egiteko, baztertutako pertsonen duintasuna itzultzeko eta, aldi berean, natura zaintzeko”³⁶.

Frantziskok 2015eko ekainean argitaratu zuen *Laudato Si’*, Parisko goi-bilera baino hilabete batzuk lehenago. “*Guztion etxea zaintzeari buruz*” azpigituluarekin, entziklikak ingurumen-erronkak eta egitura pobretzaileak lotzen ditu. Lotura hori diskurtsoaren erdigunean jarririk, “ekologia integral” baten aldeko apustua egiten du³⁷.

2023ko urriaren 4an, Frantziskok Laudate Deum (LD) erregu apostolikoa³⁸ atera zuen argitara. Hartan bi sinesmen azpimarratzen zituen: “dena konektatuta dago” eta “inor ez da bakarrik salbatzen” (LD19).

Laudate Deum-ek berriro kritikatzeko du paradigma teknokratikoa, botere teknologikoa eta ekonomikoa lehenesten dituelako eta, hortaz, ororen gainetik jartzen duelako hazkunde infinituaren edo mugagabearen ideia, kontuan hartu gabe planetaren muga geofisikoak eta zer ondorio dituen eredu horrek pertsonengan eta herrialde pobretuengan.

36 Egoitza Santua (2015) *Carta Encíclica Laudato Si’ del Santo Padre Francisco sobre el cuidado de la Casa Común*. Hemen kontsultatu da: https://www.vatican.va/content/francesco/es/encyclicals/documents/papa-francesco_20150524_encidica-laudato-si.pdf

37 Fernández Reyes, Rogelio (2023) “De Laudato Si’ a Laudate Deum”, *Ecologistas aldizkaria*, 118. zk. Hemen eskuratu daiteke: <https://www.ecologistasenaccion.org/308838/de-laudato-si-a-laudate-deum/>

38 Egoitza Santua (2023) *Exhortación Apostólica Laudate Deum del Santo Padre Francisco a todas las personas de buena voluntad sobre la crisis climática*. Hemen eskuratu daiteke: https://www.vatican.va/content/francesco/es/apost_exhortations/documents/20231004-laudate-deum.html

“Azken urteotan, diagnostiko hori berretsi ahal izan dugu, eta, aldi berean, paradigma horrek berriz aurrera egin duela ikusi. Adimen artifizialaren eta azken berrikuntza teknologikoen abiapuntuan dagoen ideia inolako mugarik gabeko gizaki bat da, teknologiari esker infinituraino hedatutako gaitasun eta aukerak izan ditzakeena. Horrela, paradigma teknokratikoa modu ikaragarrian berrelikatzen da (LD21).

Ikuspegi ekosozialetik defendatzen den bezala, *Laudate Deum-ek* adierazten du mundua ez dela aprobetxamendurako objektu bat, ezta gure bizitza eta proiektuak garatzeko “marko” huts bat ere. Naturaren barne gaude, “naturaren parte gara eta geuk ere gure baitan daramagu natura, elkarreragin etengabea; beraz, mundua ez da kanpotik ikusten, barrutik baizik”. (LD25).

Laudato Si'-k eta *Laudate Deum-ek* ekomendekotasuna eta elkar-mendekotasuna ere aldarrikatzen dituzte funtsezko giza baldintza gisa, eta, ikuspegi ekosozialak bezala, ingurumenaren jasagarritasuna, justizia soziala eta parte-hartze demokratikoa biltzen dituen ikuspegi osokoa proposatzen dute. Alboanek bere egin du “sozioanbiental” kontzeptua, gure erakundearentzat erreferente diren bi testu horietatik zuzenean datorren terminoa den aldetik³⁹. Dokumentu honetan, hezkuntza ekosozialaren bikitzat hartzen dugu justizia sozioanbientalaren ikuspegia. Haren barruan, Alboanek bi alderdi nabarmentzen ditu: batetik, jatorri ekofeminista, gizakien erabateko ekomendetasuna eta elkar-mendetasuna aitortzen dituen; eta, bestetik, giza eskubideen, kulturartekotasunaren eta tokikoa nahiz mundu osokoa biltzen dituen ikuspegiarena. Azken ikuspegi horrek hurrengo punturako bidea ematen digu: herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea (HGHE).

f. Herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea (HGHE)

Alboanen, herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea (HGHE) erabiltzen dugu gizartea eraldatzeko hezkuntza ere deiturikoa aipatzeko, zeina garapenerako hezkuntza kontzeptuaren oinordekoa baita. Dokumentu honen helburuetarako luzeegi joko luke kontzeptu horren bilakaera deskribatzen hastea, ingurumen-hezkuntza kontzeptuak bezala jada hamarkada batzuk ditu eta.

Hala ere, garrantzitsua da kontzeptu horiek nondik datozen azpimarratzea: hots, garapen-prozesuetan ezinbestean Iparralde eta Hegoalde Globalaren arteko harreman justuak sustatzeko kezka duten erakunde bultzada hezitzaile eta eraldatzailetik. Garapenerako hezkuntzak, nazioarteko lankidetzako beste ekintza batzuek bezala, nazioarteko elkartasunaren printzipioan du bere azken motibazio eta helburu garrantzitsuenetako

³⁹ Hala ere, José Manuel Gutiérrez Bastidak bere elkarrizketan kontzeptu hori dela-eta egindako ñabardura ekarri nahi dugu ohar honetara. Haren hitzetan, “sozioanbiental” kontzeptu erredundantea da, ingurumenak jada bere baitan hartzen duelako giza ingurunearekin lotutako alderdia. Zentzu horretan, kontzeptu argiagoa eta zehatzagoa izango litzateke “ekosozial”.

bat. Izan ere, esan liteke elkartasunerako hezkuntzaren modalitate bat dela garapenerako hezkuntza, eta printzipio horren nazioarteko dimentsioa azpimarratzen duela⁴⁰.

Alboan, garapenerako gobernu kanpoko erakundea (GGKE) den aldetik, hezkuntza-ekintza mota horretan dabilen gizarte-sarearen parte da. Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko kideak garenez, gure erreferentzietako bat Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren Esparru Dokumentua⁴¹ da. Horrez gain, aintzat dugu "(H)abian 2030 -Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia" ere, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziarena⁴². Lankidetzaren eta gizartea eraldatzeko hezkuntzaren mundutik, esplizituki bilatzen da ingurumenarekiko lotura:

"Gai hau lantzen joan ahala egin dugu aurrera. (H)abian 2030 estrategia egiteko prozesuan, hausnartzean eta elkarrizketetan, agertu egin ziren bizitzaren jasangarritasunaren kontzeptua eta ikuspegi ekosozialaren beste alderdi batzuk, baina ez zen horietan sakondu. Hala ere, proiektuen deialdiko baremo berria egin genuenean, (H)abian 2030 Estrategiaren elementu nagusiak sartzeko (azkenean, 2019an jarri zen martxan), iruditu zitzaigun funtsezkoa zela zeharkako bat jasangarritasun ekologikoa izatea, eta gainerako zeharkakoen puntuazio bera izatea. Garrantzi handiagoa eman nahi genion begirada horri".

"Jasangarritasun ekologikoaren zeharkakoa barematzeko irizpideetan halako salta terminologiko bat dugu. (...) Baina nolabait propio izan zen, behar bezain zabala izatea nahi genuelako, askotariko erakundeak nolabait hor islatu ahal izateko. (...) Bueltaka ibili ginen, eta, Ingurugelekin hitz egin genuenean, esan ziguten garrantzitsua zela jasangarritasunerako hezkuntzaz gehiago hitz egitea, aukera ematen digulako gaur egun ditugun krisi ugarien kausak ulertzeko eta komunitate nahiz eskualdeetan dituzten ondorio eta inpaktuak aztertzeke, baina ez pertsonengan dituztenak bakarrik, baizik eta baita planetan, oro har, dituztenak ere.

Gure ustez, jasangarritasunerako hezkuntzak kontuan hartzen ditu Iparralde Globalaren eta Hegoalde Globalaren gaineko inpaktu desberdinak, eta erlazioak azpimarratu eta erantzukizunak identifikatzen ditu, pertsona guztiek ez baitute erantzukizun bera. Dauden ahultasunak kontuan hartzen ditu, eta mailaren arabera jarduteko ahalmenaz hitz egiten du (landa-eremuan, hirietan, etab.). Horrek eraman gintuen termino hori erabiltzera, hori guztia batzen zuelako".

(Mónica Fernándezi elkarrizketa)

40 Mesa, Manuela (2014) "Precedentes y evolución de la Educación para el Desarrollo: un modelo de cinco generaciones", *Sínergias – diálogos educativos para a transformação social*, 2014ko abendua – 1. zk. Hemen eskuratu daiteke: https://sinergiased.org/wp-content/uploads/2014/11/03_manuela_mesa.pdf

41 Euskadiko GGKE-en Koordinakundea (2021) *Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren Esparru Dokumentua*. Hemen eskuratu daiteke (gaztelaniaz): <https://www.ongdeuskadi.org/wp-content/uploads/2023/02/DocumentoMarcoEPTS2021.pdf>

42 (H)abian, *Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia*. Hemen eskuratu daiteke: https://habian-2030.eus/wp-content/uploads/H-ABIAN_2030-eusk.pdf

Alboanek berezkoen duen erreferentzia, guk geuk egindako hausnarketa-prozesu batetik sortu baitzen, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea (HGHE) kontzeptua da.

“Izatea eta jakitea: garapen jasangarrirako eta herritartasun globalerako irakaslearen profila⁴³” lanetik abiatuta sortutako kontzeptu bat da, non identifikatzen baita zer gaitasun behar diren munduko erronkei erantzungo dien hezkuntza eraldatzaile bat gauzatzeko, gizarte-mugimenduek, GGKE-ek eta gizarte zibilak proposatutakoaren arabera. Argitalpen hori berariaz horretarako sortutako 4.7 Mugimenduaren⁴⁴ lantalde batek prestatu zuen, 2022an eta 2023an egindako elkarlanaren ondorioz.

HGHE honela definitzen da:

“gizarte- eta hezkuntza-prozesu bat, herritar globalak sustatu nahi dituen, munduko desberdintasunek herrialde pobretuetan eragin handiagoa dutela jakin dezaten, desberdintasunen kausekin kritikoak izan daitezen, eta garapen eredu justu, gizatiar eta jasangarria eraikitzeke konpromiso aktiboa izan dezaten”⁴⁵.

Dokumentuak irakasleen prestakuntza (hasierakoa nahiz jarraitua) sustatzeko baliagarria izan nahi du, gai izan daitezen herritar globalak erdigunean jarriko dituen hezkuntza-sistema baten premiei erantzuteko.

Kontzeptu hori, aurrekoak ez bezala, ez dator ingurumen-hezkuntzatik eta ez dagokio zuzenean haren familia semantikoiari. Hala ere, arrazoi hauengatik nabarmentzen dugu hemen:

1. Ingurumen-hezkuntzaren atalean, argudiatu dugu kontzeptu horrek bere lehenengo definiziotik hartzen duela barnean ikuspegi ekosoziala, eta orobat diogu, orain, ingurumen-hezkuntza kontzeptuak hasieratik hartzen duela barnean ikasleen mobilizazio sozialaren elementu garrantzitsu bat. Lehenengo definizioan adierazten den bezala, helburua da ikasleak herritar global batzuk izatea, *“gai horiek konpontzeko nola lagundu daitekeen jakin, eta konponbidean lan egiteko motibatuta daudenak”*.
2. HGHE kontzeptuak “gizartea eraldatzeko hezkuntza” kontzeptuak baino gehiago azpimarratzen duelako aurreko kontzeptuaren azken tokian jarri dugun ikuspegia. Gainera, dokumentu honetan aurrerago ikusiko dugun moduan, askok nabarmendu dute GGKE-en ekarpen bereizgarria dela ikuspegi hori: alegia, tokikoa eta globala, “herritartasun global” terminoan indarrez aipatua.

43 Alianza 4.7 (Entreculturas, Alboan, InteRed, Ongawa) (2023) Ser y Saber. Perfil docente para el Desarrollo Sostenible y la Ciudadanía Global. Hemen eskuratu daiteke: <https://4punto7.org/wp-content/uploads/2024/09/serysaberperfildocenteparadscg-online-1-1.pdf>

44 Hau da 4.7 Mugimenduaren webgunea: <https://4punto7.org/>

45 Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen aldeko Mugimendua (Alboan, Entreculturas, InteRed, Oxfam-Intermon) (2022) La Educación Transformadora para la Ciudadanía Global en el Sistema Educativo Español, Hemen eskuratu daiteke: <https://www.edukalboan.org/es/unidad/la-educacion-transformadora-para-la-ciudadania-global-en-el-sistema-educativo-espanol>

Terminoen desberdintasun eta, batzuetan, kontrakotasunak ikusita, ondoriozta dezakegu egokia dela bost hamarkada luzetan ingurumen, gizarte, politika eta ekonomian izandako aldaketan mendeko prozesutzat hartzea ingurumen-hezkuntza. Prozesu horretan gertatzen diren aldaketak ez dira nahitaez linealak, norabide bakarreko aurrerapen kontzeptual eta ideologiko baten zentzuan. Bilakaera horretan, ingurumenaren eta gizartearen krisiari aurre egin nahi dioten hainbat ildo daude, eta haien diagnostikoak eta proposatzen dituzten konponbideek erradikaltasun-maila desberdinak dituzte, sistema ekonomiko nagusia (kapitalista, estraktibista, ekitaterik gabea) gainditzeko edo bere horretan uzteko deiari dagokionez. Ingurumen-hezkuntzaren continuum horretan, bi proposamen ditugu: batetik dago garapen jasangarrirako hezkuntza, jasangarritasunari eta gure sistema ekonomikoaren bereizgarri den ekitaterik ezari buruzko eztabaida garrantzitsu bat irekitzen duena, eta sistema horren barruan aldaketak egitera deitzen; eta, bestetik, justizia sozioanbientala, sistema horren barruan sartzen ez den etika ekosozial bati heldu eta sistema erroitik aldatzera deitzen duena. Bi aldeen artean, jasangarritasunerako hezkuntzaren proposamenak mutur baterantz edo besterantz jo dezake, kasuan-kasuan.

Alboan justizia sozioanbientalaren alde egiten dugu. Lan eta etika ekosozialaren paradigmarekin bat egiten dugu baina, aldi berean, ez diogu inolako eragin-eremuri uko egiten. 2030 Agendari lotutako proiektuak ditugu, eta oso modu aktiboan parte hartzen dugu 4.7 Mugimenduan. Mundua aldatu nahi dugu. Mundua aldatzen duten pertsonak aldatu nahi ditugu. Badakigu zer norabidetan egin nahi dugun aurrera, eta norabide horretara batzen ditugu gure indarrak, guztion etxea hobeto zaintzeko eta ekitatea lortzeko urratsak eman daitezkeen leku guztietan. Baina, ingurumen-hezkuntzan justizia sozioanbientalaren ikuspegia txertatzeaz ari garenean, orduan bai, lehen aipatutako irizpide batzuk ezartzen ditugu:

1. Ikuspegi ekofeminista, barnean harturik ekomendekotasunari eta elkar-mendekotasunari buruzko gogoeta-mailaren bat.
2. Kulturarteko ikuspegia, aintzat harturik zer ekarpen egin dezaketen mendebaldekoak ez diren kulturek naturarekiko harremanari dagokionez; bereziki, herri indigenen ekarpenak.
3. Giza eskubideen ikuspegia, kontuan harturik zer kalte eragiten dien gure ekonomia-eta garapen-ereduak pertsona eta herri ahulenei.

Mundua aldatzen duten pertsonak aldatu nahi ditugu. Badakigu zer norabidetan egin nahi dugun aurrera, eta norabide horretara batzen ditugu gure indarrak, guztion etxea hobeto zaintzeko eta ekitatea lortzeko urratsak eman daitezkeen leku guztietan.



4. Tokikoa eta mundukoa biltzen dituen begirada bat, erdigunean jarriarik munduko herritarrek bihurtu behar dugula, Iparralde eta Hegoalde Globalaren ikuspegiaduten aktibista solidarioak.

Orain arte, gizartea jasangarritasunerantz eta ekitaterantz mugitzeko nahiarekin lotutako alderdi orokorrak aipatu ditugu nagusiki. Eta elementu hori jorratuko dugu dokumentu honetan gehienbat. Hala ere, badakigu ingurumen-hezkuntza funtsezko eremua dela giza garapen osoa, banakoa nahiz taldekoa sustatzeko. Hezkuntzaren ikuspegi espezifikoetik⁴⁶, ingurumen-hezkuntzaren eremua oso aberatsa da, hainbat korrante pedagogikorekin eta hala diziplinartekotasunari nola diziplina-aniztasunari lotutako alderdiekin bat egiten duelako. Ez dugu ahaztu behar hezkuntzaren helburua ez dela nazioarteko agenda batek ezarritako jarraibideak beteko dituzten subjektuak prestatzea. Aitzitik, hezkuntzaren lehen mailako helburu bat da nork bere nortasuna eratzea, askatasunez, autonomiaz eta norberaren testuingurutik. Lucie Sauvéren hitzetan:

“Eztabaidagai dagoena da hezkuntza-esparru barne-hartzaile bat bilatu behar dela, aholkari eta hobekien sartu ahal izateko hezkuntza garaikidearen alderdi guztiak, zeinak gure munduko gizarte- eta ingurumen-arazo nagusiak konpontzen eta proiektu eraldatzaileak eraikitzen saiatzen diren, alde batera utzi gabe giza garapen osoa sustatu behar dela, eta, horretarako, funtsezko ekarpena egiten du ingurumen-hezkuntzak”⁴⁷.

46 Politikoa ere bada, baina hezkuntza-politikarekin lotura handiagoa duen ikuspegi batetik.

47 Sauvé, Lucie (1999) op. cit.

2.2. Ingurumen-Hezkuntza Euskadin.

Atal honetan, aurrekoan bezala, ez dira xeheki deskribatuko edo aztertuko Euskadiko ingurumen-hezkuntzaren bilakaera eta ezaugarriak. Badira zeregin horri heldu dioten lan oso zorrotz eta zehatzak: erreferentzia gisa erabili ditugu, eta dokumentu honetan aipatzen dira. Atal honen helburua da ingurumen-hezkuntzak gure lurraldean egindako ibilbide instituzionalaren mugarri nagusiak erakustea (batez ere, eskola-aldiko hezkuntza formalaren esparruan) eta, aurreko atalean adierazitako ildotik, izan duen ibilbidearen eta bilakaeraren berri ematea. Euskal proposamenean eragina izan duten ingurumen-hezkuntzako joerak aztertuko dira. Ildo horretan, galdera hauei erantzun ahal izateko moduan saiatuko gara edukiak lantzen:

- Ingurumen-hezkuntzaren zer kontzeptu eta jardunbide bultzatu izan ditu eta bultzatzen ditu EAEko hezkuntza-instituzionaltasunak?
- Zer aurrerapauso (eta/edo atzerapauso) egin dira, justizia sozioanbientalaren ikuspuntutik?
- Zein dira EAEko hezkuntza-instituzionaltasunean⁴⁸ justizia sozioanbientalaren ikuspegia

Ondoren, ingurumen-hezkuntzak Euskadin dituen mugarri nagusiak aztertuko ditugu labur-labur. Bi aldi bereiz daitezke:

- a) a) EAEko hezkuntza-instituzionaltasuna hasi zenetik, Ingurugela desagertu zen arte, ikastetxeei ingurumen-hezkuntzan laguntzeko mekanismo nagusi gisa (1980-2023).
- b) Ikastetxeei ingurumen-hezkuntzan laguntzeko erakunde berria ezarri zenetik (2023tik gaurdaino).

48 "EAEko hezkuntza-instituzionaltasun" esatean ez dugu Hezkuntza Saila soilik aipatzen, baizik eta ikastetxeekin ingurumen-hezkuntza jorratzeko moduan eragin nabarmena izaten ari den instituzionaltasuna.

a) Ingurumen-hezkuntza Euskadin. Ibilbide historikoa eta bilakaera (1980-2023)

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzaren lehen legealditik (1980-1984) 2023/24 ikasturtera bitarteko aldia aztertuko dugu. Duela gutxi hasi berria den legealdiari eta aurreko bi urteei lotutako prozesuak “ingurumen-hezkuntzaren gaur egungo egoera Euskadin” atalean jorratuko ditugu.

Euskadiko ingurumen-hezkuntzaren mugarri nagusiak labur-labur aztertu, eta EAEko administrazio publikoan arian-arian sortu den ingurumen-hezkuntzako proposamenari erreparatuko diogu. Batez ere, dokumentu hauetan oinarritu gara:

- Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila (2006). *Iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (EAEko ingurumen-hezkuntzaren lehen estrategia).
- De Guzmán Alonso, José Ignacio; Gutiérrez Bastida, José Manuel (2009). *Eskolako jasangarritasunerantz. Jasangarritasuneko hezkuntzarako kalitate irizpideak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fernández Ostolaza, M^a Asun; Gutiérrez Bastida, José Manuel (2014). *Jasangarritasunerako hezkuntza EAEn: Ingurumen hezkuntzaren ekarpena jasangarritasunaren kultura hedatzeko*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia⁴⁹.
- Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila; Hezkuntza Saila (2018) 2030erako *Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Atal hau garatzeko, halaber, orientabideak eman dizkigute ikerlanaren esparruan egin ditugun elkarriketek (ikus I. eranskina: elkarriketatutako pertsonak). Haien artean nabarmengarria da José Manuel Gutiérrez Bastidari egindako elkarriketa, atal hau idazteko oinarritzat hartu ditugun hainbat argitalpenen egileetako bat baita.

Euskadiko ingurumen-hezkuntzaren **mugarri nagusien kronologia** aurkeztuko dugu hemen. Aurrerago, letra lodiz nabarmendutako mugarriei erreparatuko diegu:

I. 70-80ko hamarkadak: banakako ekimenak. Gogoratu behar dugu, orobat, diktadura batean murgilduta zegoela oraindik Espainia, eta ez dagoela “euskal hezkuntza-sistema” bat berez⁵⁰.

49 Hemen eskuratu daiteke: https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051677&N_EDIC=0001&C_IDIOM=es&FORMATO=.pdf

50 Demokraziako lehen Hezkuntza Legea 1989ko LOECE izan zen. Aurreko legeak, 1970eko Hezkuntza Lege Orokorrak, aurreko etapakoan aldean “modernizatzaileagoak” ziren hezkuntza-egitura batzuei eman zien bidea.

II. 80ko hamarkada: instituzionalizazio-prozesua. euskal instituzionaltasunaren oinarriak sortu ziren, eta, horrekin batera, EAEn ingurumen-hezkuntza babesteko eta sustatzeko egiturak.

- 1983: ingurumen-hezkuntzako lehen ikastetxea sortu zen, Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroa (SESZ). Ingurumen-hezkuntzari soilik eskainitako zentro bat zen, eta Bizkaiko ikasleek astebeteko egonaldiak egiten zituzten han.
- 1985: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Prestakuntzako Zerbitzua⁵¹ sortu zen, Lurralde Politika eta Garraio Sailerik. Irakasleen ekimenez ingurumen-hezkuntzako proposamenak egiteko sortu zen, eta dirulaguntzak ematen zituen helburu horretarako. Dirulaguntzen tresna izan zen ikastetxeei baliabideak emateko mekanismo nagusietako bat.
- 1986: Ingurumen Hezkuntzari buruzko EAEko I. Jardunaldiak (Sukarrietan)
- 1987: Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila jarri zen martxan. Lehen aldiz agertzen zen "Ingurumen" hitza esplizituki sail baten izenean. Hirugarren legealdia ezkerro, gobernu guztiek izan dute Ingurumen Sail bat, beste elementu batzuei lotua (hirigintza eta etxebizitza, ekonomia eta plangintza, lurraldea eta etxebizitza, nekazaritza eta arrantza, garapen ekonomikoa eta jasangarritasuna)⁵².
- 1989: **Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia** sortu zen, lehena **(IIHII, 2005etik aurrera Ingurugela deitu zitzaion)**. Ikastegia Ingurumen Sailaren eta Hezkuntza Sailaren arteko akordio baten ondorioz sortu zen, ikertu, esperimentatu, sentsibilizatu eta dokumentazio-zentroak mantentzeko mandatuaren pean.

III. 90eko hamarkada:

- 1992: ingurumen-hezkuntza zehar-lerro gisa sartu zen curriculum berrian.
- 1992: Ingurumen Hezkuntzari buruzko EAEko II. Jardunaldiak. Oraingoan, IIHIIk antolatu zituen.
- 1992-2002: Eskola Ekologikoa programak. Programa horren barruan, **"eskola-ekoikuskapenak"** egin ziren.

511985ean eskualdatu zitzaion Ingurumena Eusko Jaurlaritzari <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1985-9922>

52 Legealdi honetan, "ingurumen" nomenklatura desagertu da, "jasangarritasun" terminoaren mesedetan, eta Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila ezarri da.

- 1992: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ingurumen-boluntariotzako **Azterkosta** proiektua jarri zuen martxan.
- 1997: **Ibaialde** jarri zen martxan. Azterkosta boluntariotza-programa zen, eta orain ingurumen-hezkuntzako ikuspegia hartzen du, oro har, **Aztertu programaren** babespean. Eskolen eremuan, Ingurugelak koordinatzen du kanpaina hau.
- 1998: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Hezkuntzako Programa sortu zen unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistemarako⁵³.
- 1998-2003: "Ekologia eskolara" proiektua, IHHIk eta udalek koordinatua.

IV.2000ko hamarkada:

- 2002: Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) jarri zen abian⁵⁴. Estrategiaren barruan IHHIk hedatu ziren, eta Bilbokoari Gasteizkoa, Donostiakoa, Legazpikoa eta Eibar eta Gernikako unitateak gehitu zitzaizkion.
- 2003: Ingurumen Hezkuntzari buruzko Euskadiko III. Jardunaldiak (Donostian).
- 2003: **Eskolako Agenda 21** jarri zen martxan.
- 2006: "Iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn (2006-2010)"⁵⁵.

Izenburuan argi eta garbi adierazten ez den arren, EAEko ingurumen-hezkuntzako lehen estrategia zen.

- 2008: **Eskola Jasangarriaren ziurtagiriak** jarri ziren abian Eskola Agenda 21en parte hartzen urte batzuk zeramatzaten EAEko ikastetxeentzat, parte-hartzearen aitoren ofiziala eskatzen baitzioten Eusko Jaurlaritzari. Ziurtagiria lau urterako lortzen zen. Hura eskuratzeko, ikastetxe eskatzaileak autodiagnostiko bat egin behar zuen, eta Ingurugelako teknikariek kanpo-ikuskapen bat, ikastetxean bertan.
- 2015: Ingurumen Hezkuntzari buruzko Euskadiko IV. Jardunaldiak. "Jasangarritasunerako Hezkuntzako Jardunaldiak" deitu zitzairen.
- 2018: **2030rako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia**.

53 Ingurumen-hezkuntzaren arloko EAEko legeria ikusteko: <https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-hezkuntzari-buruzko-legeria/web01-a2inguru/eu/>

54 Hemen eskuratu daiteke: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/eavds20022006/eu_def/adjuntos/iep2006.pdf

55 Hemen eskuratu daiteke: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_ed_ambiental/eu_def/adjuntos/800005e_compromiso_educacion_sostenibilidad_e.pdf

Beste behin ere, ikus dezakegu hezkuntzan ingurumen-ikuspegiak txertatzeko programak ez zirela ustekabeen sortu. Ingurumen-hezkuntzak EAEn izan duen historia eta ibilbidea ez dago ingurumen-hezkuntzak munduan izandako bilakaeratik kanpo, eta zenbait ezaugarri komun ikus daitezke EAEko eta beste leku batzuetako bilakaeran, ingurumen-hezkuntzaren joera orokorragoekin lotuta.

- a) 70eko hamarkada: garai honetako ezaugarri nagusia irakasleen ekimenak dira; normalean, garaiko arazo ekologikoekin eta ingurumenarekin sentsibilizatuta zeudelako. Ingurunera irteerak egin ohi zituzten, ekosistemak aztertzeko.
- b) 80ko hamarkada: banako ekimenetatik irakasle taldeek proiektutan egindako lanera igaro zen. Proiektuetako asko diziplinarteko ekimenak ziren. Garai horretan sortu ziren lehen naturagune babestuak, baita ingurumen-hezkuntzako zentro espezifikoak ere, eta ikastetxeak gune horietara bisita egituratuak egiten hasi ziren.
- c) 90eko hamarkada: konpromisoa areagotu, eta klaustrora hedatu zen. Ekoeskolak eta ekoikuskapen-prozesuak agertu ziren. Ekoikuskapenek klaustro osoaren inplikazioa eskatzen dute: ikasleekin batera, ikastetxearen barruko baliabideen kudeaketa jasangarria lortzeko prozesuan parte hartu behar du. Horrela, ondoren gizartean birstortu daitekeen laborategi gisa funtzionatzen dute ekoikuskapenek.
- d) 2000-2020: aurrez klaustrora arte iristen zen konpromisoa, hezkuntza-komunitate osora zabaltzen da orain, adiera zabalean ulertuta: ikasleak, irakasleak, irakasle ez direnak, familiak, eta baita udalerriko hezkuntza-eragileak ere (eragile politikoak barne, nagusiki udalak). Sinergia handia dago udalerriko lurralde-eragileen artean.
- e) 2020tik aurrera: programa gehienak 2030 Agendari eta Garapen Jasangarriko 17 Helburuei lotuta daude. Une honetan gaude orain.

Ingurumen-hezkuntzak euskal hezkuntza-sistema formalean duen instituzionaltasunaren ikuspegitik, argi dago **IIHII-Ingurugelak** izan direla ardatz egituratzailea. IIHII 1989an sortu zen, eta 2005etik hainbat zentrotara hedatu da Ingurugela izenarekin, mandatu hau betetzeko:

- Ikastetxeei aholkularitza eta laguntza ematea.
- Hezkuntza-materialak prestatu, argitaratu eta zabaltzea.
- Irakasleei prestakuntza ematea.
- Programa eta kanpainak koordinatzea.

Ingurumen-hezkuntzak hamarkadetan zehar egin duen ibilbidea aztertzean esan dugun bezala, Ingurugelen zereginak ere arestian aipatu diren ildo beretatik joan dira eboluzionatzen. Programa nagusi hauen inguruan egituratu dute beren jarduera:

- Eskola-ekoikuskapenak (1992-2002)
- Eskolako Agenda 21 (2003-2022)
- Eskolako eta LHko 2030 Agenda⁵⁶ (2022tik aurrera)

Lehen adierazi dugun bezala, **eskola-ekoikuskapenak** mugarri garrantzitsuak izan ziren ingurumenaren problematikari ikastetxe osoak erreparatzeko, eta ez bakarrik irakasle isolatu batzuek, baizik eta ikastetxe-mailako proiektua izan zedin:

“90eko hamarkadaren amaieran ekoikuskapenekin geunden, aurrez egiten zenaren aldean jauzi bat ekarri zuten. Aurreko mugimenduak banakakoak ziren gehiago: “burutik jota” geunden irakasle batzuk, neska-mutilak basora eramaten genituenak, edo urmaelera, edo hormari begiratzen. Bertatik bertara genituen ekosistemetan zer zegoen ikustera joaten ginen, eta lankideen proiektu txiki bihurtzen genuen hori gero. Ekoikuskapenen programak, Asun Fernández Ostolazaren liburuarekin (zeina erreferentzia bat den), jauzi kualitatibo bat izan ziren, ez baitira banakako proiektuak. Aitzitik, klaustroak hartzen du konpromisoa. Egia da kudeaketako elementuekin lotuta zegoela: nola kudeatzen diren ura, papera, etab., eta ikasleen zeregina instrumentalagoa zela (hau egingo dugu, horrela egingo duzue, etab.), baina urte haietan jauzi kualitatiboa zen”.

(José Manuel Gutiérrez Bastidari elkarrizketa)

Milurteko berrian sartzearekin batera, Eskolako Agenda 21 programari hasiera eman zitzaion⁵⁷. Programaren izena Rio de Janeiroko Goi Bileraren Programa 21ekin⁵⁸ lotuta dago, eta jauzi kualitatibo berri eta garrantzitsua izan zen:

“Dagoeneko klaustroa ez da programaren arduradun bakarra. Orain, batetik, ikastetxeko hezkuntza-komunitatea arduratzen da, eta hor guztiak sartzen dira: irakasleak, irakasle ez direnak, ikasleak, familiak... eta lotura estua dago udalerriarekin. Udaleko irudiak sartzen dira, udal zerbitzuak (...) eta galdera bat: udala nork kudeatzen duen eta zer egiten duen. Aurrez lantzen ziren gai ia berdinetatik hasten dira, hala nola papera, energia, ura, etab. Baina hori jada eboluzionatzen joan zen, eta hainbat gai sartu ziren, besteak beste, klima-aldaketa, biodibertsitatea, kontsumoa, eta abar. Are gehiago eboluzionatuta, ekitatea,

56 2022/23 ikasturtetik bi dira 2030 Agendak Euskal Autonomia Erkidegoan: Eskolako 2030 Agenda eta Lanbide Heziketako 2030 Agenda, unibertsitateaz kanpokoak biak. Lehen unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-etapa guztietarako da, LHrako izan ezik, LHk bere 2030 Agenda baitu.

57 Eskolako Agenda 21 gida https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_ed_ambiental/eu_def/adjuntos/800007e_agenda_2008_educar_soste_guia_e.pdf

58 Nazio Batuen webgunea, Garapen Jasangarriko Atala, Programa 21 <https://www.un.org/spanish/esa/sustdev/agenda21/index.htm>

justizia soziala eta beste zenbait hasi ziren agertzen, lehen garrantzirik ez zuten alderdi sozialak”.

(José Manuel Gutiérrez Bastidari elkarrizketa)

2030 Agenda, gaur egun martxan dagoen programa, Eskolako Agenda 21ekin hasitako lurralde-prozesu kolektiboaren oinardekoa da. Agenda 21 bezala, komunitatearen parte-hartzean oinarritzen da; nagusiki ikasleena, udalerrria jasangarria izateko esku hartzen eta laguntzen baitute. Ingurumen-hezkuntzako programa den aldetik (nahiz eta jasangarritasunerako hezkuntza gisa bideratu, zehazki), haren helburua da eraldaketa ekosozialean parte hartzeko gaitasunak, ezagutzak, jarrerak, motibazioa eta konpromisoak garatzea. Bi ardatz ditu: a) ingurune jasangarriak b) kalitateko hezkuntza. Ardatzak partaidetza-kulturan eta helburu hauetan daude oinarrituta:

- Ingurunearen egoera ekosoziala ulertzea.
- Erabakietan parte hartzeko trebatzea.
- Ikastetxearen eta ingurunearen kudeaketa sustatzea, jasangarritasunarekin eta GJHein bat etorritz.

Agenda 21en izena Rio 21etik datorren bezala, Eskolako 2030 Agendaren erreferentzia-esparrua 2030 Agendaren garapen jasangarrirako helburuak (GJH) dira. NBEren Batzar Nagusiak 2015ean onartu zuen agenda berria. Alderdi horretan, udalek nahiz mankomunitateek barnean hartzen dute ikastetxeekin egindako lana, bakoitzak bere Tokiko 2030 Agendan dituen beste prozesuekin batera⁵⁹. Hala, udalek kanpo aholkularitza bat jartzen dute ikastetxeen esku, Udaleko Eskola Foroa dinamizatzen dute, eta behar bezala erantzuten diete eskolen proposamenei.

Eskolako 2030 Agendaren ezarpen berriena guk EAEko ingurumen-hezkuntzaren beste etapa bati esleitutako urteetan egin zen, eta, beraz, hurrengo atalean jorratuko ditugu Agenda horren elementu batzuk.

Nolanahi ere, lehen aipatutako bi jauzi kualitatiboekin batera (lehen, ekoikuskapenetan klaustro osoa inplikatzeko duena, eta bigarrena, hezkuntza-komunitate osoa udalaren lurralde-eremuan inplikatzeko duena), badira nabarmendu nahi ditugun beste hiru elementu.

Lehen elementua **sareak** dira. Eskolako Agenda 21ek eta Eskolako 2030 Agendak udalerrira ireki zuten eskola (eta alderantziz). Baina, udal-dimentsioaz gain, tokian tokiko eta nazioko sareak ezarri hasi ziren egituratzen eta hedatzen ingurumen-hezkuntzari lotutako proposamenak. 2008an, Agenda 21 programan parte hartzen zuten EAEko ikastetxeak

59 Udalsarea 2030 (2019) *Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik. Gida praktikoa*. Hemen eskuratu daiteke: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/agenda2030local/eu_def/adjuntos/Agenda_local_2030_guia_practica_EUS.pdf

eskola jasangarri gisa ziurtatzeko prozesua hasi zen. Horretarako, ikastetxe eskatzaileak autodiagnostiko bat egiten zuen, eta Ingurugelako teknikariek, berriz, kanpo-auditoretza bat. Prozesu horren eskutik sortu zen IRAES 21 sarea ere, ziurtagiri hori lortu duten ikastetxeak erlazionatzen dituen. Ikastetxe hitzak esan nahi du irakaslez, ikaslez, irakasle ez diren langilez eta familiekin osatutako hezkuntza-komunitatea. Sarea beste hezkuntza-erakunde batzuei eta helburu bera lortzeko lanean ari diren beste ikastetxe batzuei irekita dago. Hauek dira helburu orokorrak:

- EAEko ikastetxeetan jasangarritasunerako hezkuntza bultzatzea.
- Eskolako Agenda 21 programaren kalitatea sendotzea.
- «Ikastetxe jasangarri» gisa aitortutako zentroen arteko sinergiak sustatzea.
- Jasangarritasunerako hezkuntzako sare nazional eta nazioartekoekin harremanak izatea.
- Hezkuntza-komunitatearen ikaskuntza bultzatzea, lankidetzaren bidez.

Bi urte geroago, 2010ean, ESenRed (Escuelas Sostenibles en Red) sortu zen, Ingurumen Hezkuntzako Zentro Nazionalak (CENEAM) antolatutako mintegi iraunkor baten esparruan. Sare nazionalak, gaur egun, 14 sare hartzen ditu barne, IRAES 21 tartean dela, eta 4800 ikastetxe biltzen ditu.

Bigarren elementuak **ikasleen protagonismoa** erekin du zerikusia. Prozesu horrek mugarri eta etapa guztietan du eragina, eta sare-lana sakontzea dakar berekin. Hala, hasieran parte hartzeko proposamena “instrumental” samarra bazen ere –hau da, ikasleek irakasleen eta ikastetxearen jarraibideak bete behar zituzten–, eboluzionatu eta ahalik eta autonomia handiena sustatzera jo du:

“Guk, garai hartan, ‘Harten eskailera’ erabiltzen genuen. Tresna horrek bederatzi urrats markatzen zituen garapen jasangarriaren alde lan egiteko orduan. Azken maila ikasleen erabateko protagonismoa zen. Eta hor ere oso aldaketa garrantzitsua gertatu da”.

(José Manuel Gutiérrez Bastidari elkarrizketa)

Illo horretan, aipatu behar da CONFINTen sustatzaile eta aitzindaria ere izan dela Ingurugela. «Zaindu dezagun planeta» Gazteen Estatu Konferentzia (CONFINT) bi urtez behingo partaidetza-prozesu bat da, espainiar estatu osoko gazteak elkartzen dituen, mundua hobetu nahi bada tokian-tokian jarduteko modu onena zein den eztabaidatu, partekatu eta erabaki dezaten, eta gazteek egungo arazo ekosozialen aurrean jarrera hartzea nahi duena. CONFINTen, eskola jasangarri gisa ziurtatutako ikastetxeetako ikasleek parte hartzen dute. Helburua da gazteen lidergo-gaitasuna bultzatzea, belaunaldien ahalduntzea sustatuz, elkarrizketaren eta tokiko, eskualdeko nahiz estatuko lankidetzaren bidez.

Gune horietan, lan hirukoitza egiten da. Alde batetik, gazteek beren ikastetxeetan garatu dituzten proiektuak partekatzeko aukera dute. Bestalde, hainbat tailer eta dinamikatara joaten dira, eta krisi ekosozialaren nondik norakoei buruz ikasten jarraitzen dute, hainbat



ikuspegitatik. Azkenik, demokratikoki aukeratzen dira CONFINTeko ikasleen ordezkariak; ondoren, hainbat forotan parte hartuko dute konferentzia horietako mezua eta ondorioak zabaltzeko⁶⁰.

Horrela, ikusten dugu CONFINTa, ikasleak ahalduentzeko eta protagonista izateko prozesu bat, sare-lanarekin batera garatzen dela. Estatuko lehen CONFINTa 2012an izan zen, Euskadin, eta beste bost izan ditu atzetik: Bartzelona (2014), Logroño (2016), Albacete (2018), Guadarrama (2021) eta Sierra Nevada (2023).

Hirugarren elementuak **ikuspegi ekosozialerako** bidean koska bat estutzearekin du zerikusia. Arestikoak ez bezala, jauzi hori ez dago hain lotuta ikastetxeentzako plan edo programa berri bat proposatuz norabidea aldatzearekin (ekoikuskapenetatik Agenda 21erako aldaketa izan zen moduan, adibidez), baizik eta lege-aldaketa batek (LOMLOEk) eskainitako aukerarekin.

Gutiérrez Bastidak Eskolako Agenda 21en barruan ikastetxeen proiektuetako gaiek zer bilakaera izan duten azaltzean esan bezala, ikastetxe eta udalerri asko ingurumenaren, naturaren eta gizartearen elementuak askoz gehiago integratzen zituen ikuspegi batetik hasi ziren ingurumen-arazoak lantzen; hots, ikuspegi askoz ere sozioanbientalago edo ekosozialago batetik. Udalerrietan, ikastetxeetan eta ingurumen-hezkuntzari lotutako pertsonengan jada abian zen haztegia.

60 Erreferentzia gisa, ikus:

- González, C., Pérez, P. eta Vilar, M. (2022). *Buenas prácticas de educación para el desarrollo sostenible. Conferencia Internacional de Jóvenes: Cuidemos el planeta – CONFINT*. Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa.
- Gutiérrez Bastida, J.M. (2012). *La Confint, una conferencia internacional de jóvenes para cuidar el planeta. Boletín del Ceneam*. Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioa. Urtarrila.
- Gutiérrez Bastida, J.M. (2014). *LA CONFINT Y ESENRED: CRISOLES DE APRENDIZAJE HACIA LA ECO-CIUDADANÍA. Boletín del Ceneam*, azaroa.

“Eta, orduan, ikuspegi ekosozialaren elementuak iritsi ziren, eta jauzia sinestezina izan zen. Lehenik eta behin, estatuan ikuspegi ekosozialeko curriculuma egiteko borrokan parte hartu zuten elementuengatik. Hori ez zen lortu, baina bai ñabardura ekosozialak zituen curriculum bat. Ikusten duzunean legea nola deskribatzen den, hori gauza bat da, eta curriculuma beste bat. Badirudi curriculuma beste nonbait dagokiola. Ingurumen-hezkuntzan ez dugu garaipenak ospatzeko joera handirik, baina hor bizitzaren zentraltasuna ageri da, elkar-mendekotasun hitza ageri da, eta ekomendekotasuna, kontzientzia ekosoziala, justizia soziala, larrialdi klimatikoa... Lehengoaren aldean jauzi izugarria dakarten elementu batzuk agertzen dira. Ez da ideala, ezin baita esan ikuspegi ekosoziala duenik, baina gure aukerak hobeto jokatzeko modua ematen diguten elementu asko daude”⁶¹.

(José Manuel Gutiérrez Bastidari elkarrizketa)

Gutiérrez Bastidak bezala, **konpromiso historiko baten barruan** kokatzen badugu ingurumen-hezkuntzak Euskal Autonomia Erkidegoan izan duen bilakaera, errazagoa da hainbat elementu laburbiltzea ikusitako ibilbidean:

- Ingurumen-hezkuntzaren nazioarteko bilakaerarekin lotutako ibilbide historiko bat da, eta nazioarteko proposamenen eragina ere jaso du, bereziki, nazioarteko konferentzietakoena. Ildo horretan, UNESCOrenak eta 2030 Agendarenak nabarmendu behar dira.
- Programaz programa egiten ari diren urratsek ingurumen-hezkuntzako proposamen gero eta osoagoetarantz aurrera egitea ahalbidetzen dute. Adibidez, jada irakasle

61 Gutiérrez Bastidak adierazi bezala, LOMLOEn hainbat elementu daude hezkuntzaren ikuspegi ekosoziala babesten dutenak. Hauek dira, besteak beste:

1. artikulua. Printzipioak

r) Trantsizio ekologikorako hezkuntza, justizia sozialeko irizpideak aintzat hartuko dituenak, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-jasangarritasunari laguntzeko.

2. artikulua. Xedeak

e) Bakerako, giza eskubideen errespeturako, elkarbizitzarako, gizarte-kohesiorako, lankidetzarako eta herrien arteko elkartzararako prestakuntza, bai eta izaki bizidunenganako, animalien eskubideekiko eta ingurumenarekiko eta, bereziki, basoekiko eta garapen jasangarriarekiko errespetua bultzatuko duten balioak eskuratzea ere.

18. artikulua (lehen hezkuntzako antolamendua). Edukiak:

3. Aurreko apartatutan sartutako arloei, Balio Zibiko eta Etikoetan Oinarritutako Hezkuntza gehituko zaie hirugarren zikloko maila batean. Balio Zibiko eta Etikoetan Oinarritutako Hezkuntza arloan, gai hauei buruzko edukiak sartuko dira: Espainiako Konstituzioa, giza eskubideak eta haurren eskubideak lantzea eta errespetatzea, garapen jasangarriaren aldeko eta munduko herritar izateko hezkuntza, gizonen eta emakumeen berdintasuna, aniztasuna errespetatzeak duen balioa, zergen gizarte-balioa, eta espiritu kritikoa eta bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzea.

25. artikulua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailaren antolamendua.

1. Etopa honetako mailaren batean, Balio Zibiko eta Etikoetan Oinarritutako Hezkuntza ikasgaia jasoko dute ikasle guztiek. Ikasgai horretan, arreta berezia jarriko zaio hausnarketa etikoari, eta honako hauek lantzeari eta errespetatzeari: giza eskubideak eta haurren eskubideak; Espainiako Konstituzioan jasota dauden eskubideak; garapen jasangarriaren aldeko eta munduko herritar izateko hezkuntza; emakumeen eta gizonen berdintasuna; aniztasunarekiko errespetuaren balioa; zergen eta justizia fiskalaren funtzio soziala, eta espiritu kritikoa eta bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzea.

Seigarren xedapen gehigarria. Garapen jasangarriaren aldeko eta munduko herritar izateko hezkuntza.

2030 Agendaren eta garapen jasangarriko laugarren helburuaren arabera, garapen jasangarriaren aldeko eta munduko herritar izateko hezkuntza kontuan hartuko da irakasleen prestakuntza-prozesuetan eta irakasle-eginkizunean hasteko unean. Aurrekoarekin bat etorriz, 2022. urterako, garapen jasangarriaren aldeko eta munduko herritar izateko hezkuntzari lotutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak txertatuta egongo dira irakasle-eginkizunean hasteko sisteman. Era berean, 2025erako, irakasle guztiek 2030 Agendan ezarrita dauden xedeei buruzko prestakuntza jasota izan beharko dute. Lanbide Heziketan, berriaz, 3/2022 Legea (Lanbide Heziketaren Antolamenduari eta Integrazioari buruzkoa) eta hura garatzen duen 659/2023 Errege Dekretua onartu zenetik, 2025/26 ikasturteik aurrera produkzio-sistemari aplikatutako jasangarritasunari buruzko modulu bat sartuko dela (LHko heziketa-zikloetan modulu esaten baitzaie ikasgaiei), astean ordubetez, EAEko LHko heziketa-ziklo guztietako 1. mailan.

sentsibilizatuak zeudelako zabaldu zen klaustrora, eta jada sentsibilizatutako eta trebatutako hezkuntza-komunitate bat zegoenean hedatu ahal izan zen udalerrira.

- Aurrerapauso instituzional batzuk daude, eta, aldi berean, aurrerapen kontzeptual bat, diziplinartekotasun gero eta handiagoa duena, askotariko lurralde-eragileen arteko lankidetzara bideratuta dagoena, eta ikasleen protagonismo handiagoa bultzatzen duena. Gero eta gehiago, edukiak ekosozialak dira, metodologiak partaidetzazkoak, eta instituzionaltasuna sarean.

Gutiérrez Bastidaren arabera, prozesu hori

“ez da maila guztietan gertatzen, ezta eskola edo eskala guztietan ere, baina gainerakoentzat erreferentea den korrante aitzindari bat markatzen du”.

Prozesu horretan, Ingurugela izan zen sistemaren oinarria. Erakunde horrek bi sailekin zuen lotura: batetik, Hezkuntzak irakasleak liberatzen zituen ingurumen-hezkuntzako aholkularien taldea osatzeko; eta, bestetik, Ingurumenak programen funtzionamendurako dirua jartzen zuen. 2022/23 ikasturtean, 1989an IIHI sortu zenetik bezala funtzionatzeari utzi zioten Ingurugelek. Funtsezko aldaketa izan zenez EAEko ingurumen-hezkuntzaren esparruan, handik harakoan beste aldi berri bat sartu dugu: Euskadiko ingurumen-hezkuntza 2023az geroztik.

b) Ingurumen-hezkuntzaren gaur egungo egoera Euskadin (2023tik gaurdaino)

Azken urteotan funtsezko aldaketa bat gertatu da Euskadiko ingurumen-hezkuntzaren egiturari: 2023ko udan desagertu egin zen Ingurugela, hiru hamarkadan baino gehiagoan Euskadiko ingurumen-hezkuntza gidatu zuen erakundea. Hala, azkena eman zitzaion Hezkuntza eta Ingurumen sailen lan-estrategia bateratuari, eta Ingurugeletako teknikari batzuk Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Esparruan sartu ziren, Berritzegune Nagusiaren barruan. Esparru hori berariaz sortu zen Ingurugelak ixteko prozesuaren ondotik. Ingurugelaren finantzaketa Ingurumen Siletik zetorren nagusiki, eta orain ingurumen-hezkuntzako estrategia berri bat finantzatzen du, herritarren hezkuntza ez-formalari lotuagoa.

Azken urteotan funtsezko aldaketa bat gertatu da Euskadiko ingurumen-hezkuntzaren egiturari: 2023ko udan desagertu egin zen Ingurugela, hiru hamarkadan baino gehiagoan Euskadiko ingurumen-hezkuntza gidatu zuen erakundea.

Ingurugelaren finantzaketa Ingurumen Saitetik zetorren nagusiki, eta orain ingurumen-hezkuntzako estrategia berri bat finantzatzen du, herritarren hezkuntza ez-formalari lotuagoa.

Eusko Jaurlaritzaren hamabigarren legealdian gertatu zen aldaketa hori. Gure iritziz, aldaketa horien atzean dauden erabakiak, nagusiki, Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak (orain Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila dena) eta Hezkuntza Sailak hartu zituzten, 2020ko irailaren 8tik aurrera eratu zirenean⁶².

Atal honetarako erabili dugun informazioaren zati handi bat elkarrizketetatik dator, ez baitugu bibliografiarik ingurumen-hezkuntzaren egitura berria erabakitza eraman zuen prozesuari buruz. Hauxe da daukagun informazio nagusia:

- 130/2022 Dekretua, azaroaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntza sustatzen duena.
- Ingurugelen itxiera 2023ko udan.
- Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Esparruaren sorrera Berritzegune Nagusiaren barruan, 2023/24 ikasturtetik.
- Elkarrizketen bidez lortutako informazioa.

Erakunde-aldaketen ondoren, instituzionaltasun berri hau arduratzen da orain ikastetxeen bidelaguntzaz:

1. Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzaren esparrua, oro har, Hezkuntza Sailaren mendeko Berritzegune Nagusiari emandako eginkizunen barruan⁶³. Berritzegune Nagusiaren baitan, hauek dira esparruaren eginkizunak:

- Hezkuntzako Sailburuordetzari laguntzea ikastetxeetan jasangarritasunerako hezkuntza-estrategia sustatzen eta garatzen.

62 Aurrerantzean "Ingurumen Saila" erabiliko dugu gaur egun "Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun" izeneko sailari dagozkion proposamenei buruz hitz egiteko.

63 Ikusi informazioa Berritzegune Nagusiaren webgunean: http://nagusia.berritzeguneak.net/eu/funciones_berritzegunes.php

- Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzan berrikuntza bultzatzea, proiektuak sustatuz, baliabideak emanez eta ikastetxeekin lankidetzan ikertuz.
- Irakaskuntzarako gaikuntza-planak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, irakasleei beharrezko esparru berritzailea emateko ikuspegi ekosoziala eta haien irakaskuntza-praktika txertatzeko; ingurune zehatz bakoitzean hautemandako beharrak betetzeko eta jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzako proiektuak abian jartzeko ikastetxean, bai eta hezkuntza-ekintza ekosozialeko planak eta programak garatzean ikastetxeek elkarri eragiten dioten tokiko eta lurraldeko mailetan ere.
- Foroak eta topaketak bultzatzea, jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzan diharduten irakasleek eta beste eragile batzuek esperientziak truka ditzaten eta baterako proiektuak garatu ahal izan ditzaten.
- Hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzea, erronka ekosozialak, ingurumenekoak eta jasangarritasunaren esparrukoak ezagutu ditzaten, kontzientzia har dezaten eta inguruneari buruzko kezka eta zaintza sor dezaten, eta eraldaketa-eragile aktibo bihurtzeko daitezten.
- Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzari buruzko dokumentu-funts bibliografikoak, informatikoak eta ikus-entzunezkoak ikastetxeen esku jartzea, ingurumenaren arloan eskumena duen sailarekin lankidetzan.
- Hezkuntza zientifiko eta teknologikoan eta ekintzailertzan berrikuntza-proiektuak garatzeko STEAM gaitasunean parte hartzen duten ikastetxeen aholkularitza eta prestakuntza ematea, arazo ekosozialekin lotutako ikerketa/ikerkuntza zientifikoaren bidez, ingurumen-arloan eskumena duen organoarekin koordinatuta.
- EAEko eta EAEtik kanpoko ingurumen- eta jasangarritasun-foroak antolatzea eta horietan parte hartzea, hezkuntza-eremuarekin lotuta (ESenRED, Confint, CONAMA...), ingurumen-arloan eskumena duen organoarekin koordinatuta.
- «Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren 2030 Agenda» sortzea, elkarlanean aritzeko eta jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzan lagunduko duten esperientziak eta jardunbide egokiak zabaltzeko.
- Ingurumen-gaietan eskumena duen sailarekin lankidetzan aritzea ikastetxeetan iraunkortasuna aitortzeko prozesuan, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzan Berritzeko, Gaitzeko eta Ezagutza Kudeatzeko Zentroan eta "Ikastetxe Jasangarria" zigilua kudeatzeko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko organoetan parte hartuz.

- Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzako proiektuen ezarpena bultzatzea, Garapen Jasangarriko Helburuen esparruan, ingurumenaren eta jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzaren arloan eskumena duen sailarekin esparru horretan adosten den estrategiarekin bat etorri⁶⁴.

2. Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren Ingurumen Arloak ingurumen-hezkuntzarako egindako proposamenak. Hemen daude:

- **Aztertu programek** (Azterkosta, Ibaialde eta Aztertu Natura) ibilbide luzea dute (Azterkosta 1992an hasi zen, Ibaialde eta Aztertu, berriz, 1997an). Ingurumen-hezkuntza sustatzeko dekretuan, honela agertzen da: *“Aztertu+ programa: hezkuntza-komunitateak eta herritarrek oro har parte hartzeko programa, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenaren arloko eskumena duen sailak sustatua eta garatua; gizakiaren eta haren ingurune naturalaren artean harreman jasangarria ezartzeko premian sentsibilizatzea sustatzen du, zenbait kanpainaren bidez (Azterkosta, Ibaialde eta Aztertu-natura)”*⁶⁵. Programan nahi duten erakunde guztiek har dezakete parte, eta hezkuntza formalaren edozein etapari irekita dago. Gainera, Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako eskaintza espezifikoak ditu. Hau da, eremu formalerako nahiz ez-formalerako ingurumen-hezkuntzako programa bat da.
- **Ekoetxeen hezkuntza-proposamenak:** Ekoetxea – Euskadiko Ingurumen Zentroen Sarea leku enblematikoetan dago (Meatzaldea, Urdaibai, Azpeitia, Txingudi), eta herritar guztiak ditu xede. Sarearen helburua da ingurumena zaintzearen garrantziari buruzko kontzientzia hobetzea eta egunerokoan ohitura jasangarriak hartuz ekintzara pasatzea. Ekoetxeak **Eskolagune** proposamena plazaratu berri du 2024/25 ikasturterako eta, haren barruan, LOMLOEn oinarritutako ikaskuntza-egoerak proposatzen dizkie ikastetxeei⁶⁶.
- **Ingurumen-hezkuntza bultzatzeko Boost proiektua.** Proiektu hori 130/2022 Dekretutik ateratzen da zuzenean, eta berau da berrikuntza eta apustu nagusia. Dekretuan Aztertu eta Ekoetxeak aipatzen dira, baina, besteak beste⁶⁷, nabarmengarria da **Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzan Berritzeko, Gaitzeko eta Ezagutza Kudeatzeko Zentroa** sortzen dela: *“Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloko eskumena duen sailak kudeatutako zentro fisikoa eta birtuala. Erreferentziazko gunea [...] Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzaren arloan”*⁶⁸.

64 Hemendik atera da: <https://www.miteco.gob.es/es/ceneam/recursos/quien-es-quien/iraes21.html>

65 130/2022 Dekretua, azaroaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntza sustatzen duena, 16. artikulua. Hemen eskuratu daiteke: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2022/11/02/130/dof/eus/html/>

66 Ikusi <https://ekoetxea.eus/eskolagune/>

67 Dekretuaren xede guztiak ikusteko, ikus “1. artikulua. Xedea eta helburuak”. Hemen eskuratu daiteke: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2022/11/02/130/dof/eus/html/>

68 https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpesimpc/es/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso487090/es_doc/index.html

Eremu birtualerako plataformaren prototipo bat dago, eta, hortik abiatuta, erakunde laguntzaileekin lanean ari dira⁶⁹; hots, ingurumen-hezkuntzaren arloko hogeita hamar erakunde, "eragile" eta "interes" taldeak osatzen dituztenak. Helburua da ingurumen-hezkuntzaren arloan lan egiten duten erakundeen eta pertsonen arteko sare bat ehuntzea, eta topaleku bat eskaintzea parte-hartzaileen artean balioa eta sinergiak sortzeko.

Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntza gizarte osora iristea da asmoa, gure ohiturak aldatzen eraginkorrak izan gaitezen. Hartara, trantsizio energetikoa lortu eta larrialdi klimatikoari aurre egin ahal izango diogu. Xede diren taldeen artean, ikastetxeetako irakasleak ere badaude.

Dekretuaren beste elementuetako bat **"Ikastetxe jasangarria" zigilua** da. Ingurugela itxi zenetik, ingurumen-arloko dirulaguntzaren mende dago oraindik.

Horrela, ikus dezakegu azken urteotan berriz egituratu direla ingurumen-hezkuntza sustatzeko EAEko zerbitzuak, bereziki, eskola-eremuko ingurumen-hezkuntzarenak. Oraintsuko aldaketa bat da, eta hezkuntza-sistemaren barruan 2023/24 ikasturtean baino ez da garatu. Erakundeen aldaketak eragina izan du ingurumen-hezkuntzan esku hartzen duten eragileengan, eta egon litezkeen kausak, arriskuak, abaguneak eta abar identifikatu dira.

Ingurumen Sailak:

3. Ondorioztatu zuten Eskolako 2030 Agendara bideratutako baliabideak oso ugariak zirela, eta eredua agortuta zegoela: ekoikuskapen-prozesu burokratiko eta garestiak, ikastetxe berriak sartzeko zailtasunak (400 ikastetxe, Euskadin 1300 daudenean), etab. Testuinguru horretan, **irakasleen prestakuntza azpimarratu** nahi zen, gabezia ugari antzeman ziren eta:

"Irakasleei egindako inkestetan, honako hauek ziren antzemandako gabezia nagusiak: lehenik eta behin, denbora falta curriculumaren barruan (...). Hezkuntza-proiektuetan oraindik ez zaie denborarik eskaintzen ingurumen-hezkuntzako gaiei soilik. (...) Bigarren alderdia: prestakuntza falta zutela, ez zirela gaituak sentitzen (...) funtsezko gaiez ari naiz (...) adibidez, klima-aldaketaz. Zientzia-mailan egiten dena irakasleek eta ikasleek ulertzeko moduan berridaztea".

(Elkarriketa Mikel Ballesterosi)

4. Herritar guztiak hezi behar dira. Ingurumen-hezkuntza osoaren funtzionamendua aztertu behar da, ez soilik hezkuntza formalean, baizik eta baita hezkuntza ez-formalean eta hezkuntza informalean ere. Krisi klimatikoari eta antzeko alderdiei aurre egiteko aldaketa ez

69 Ikus dekrētuaren 12. artikulua

da eskola-aldiko ikasleetan geratzen, askoz haratago doa. Familiak, profesionalak eta abar sartu behar dira tartean. Askotan, arazoa ez dago txikienengan, helduengan baizik.

“Ez gaitezen hezkuntza formalean soilik zentratu. Berdin dio eskolan nire semea eta alaba balioetan hezten badituzte: haien ispilua etxean dago. Garrantzi handia eman behar zaie familiei. (...) Herritarren elkarrizketetan –adibidez, pintxo-potean gaudenean– ingurumen-hezkuntzak tokirik ez duen bitartean, ez dugu ezer lortuko. Pintxo-potea diot, euskal herritarrengan oso hedatuta dagoen jarduera sozial bat aipatzearren”.

“Iritsi nahi dugun talde garrantzitsu bat profesionalena da. Elkargo eta erakunde profesionalak, gremioak. Ez soilik arkitekto, ingeniari, filosofo eta abarrengana iristea. Ostalaritza, ile-apainketan, merkataritza ere badaude profesionalak... (...) Adibidez, eraikuntzako igeltserotza: zein material diren ingurumenerako hobeak, zein material ez liratekeen erabili behar... Ingurumen-hezkuntzaren arloan ekarpenak egin ahal eta nahi dituzten pertsona guztiak hartu behar dira kontuan”.

(Elkarrizketa Mikel Ballesterosi)

“Zailxeagoa bada ere, helduen lantokietan, lantegietan eta enpresetan jarri beharko genuke arreta. Ez dakit oso ondo nola, baina ekoizpen-zentro horietan esku hartu beharko genuke”.

(Sonia, Egibideko ikasleei egindako elkarrizketan).

5. Loturak sortu behar dira EAEn ingurumen-hezkuntzaren edo jasangarritasunerako hezkuntzaren eremuan diharduten **askotariko erakundeen artean**. Ahaleginak batu behar zirela ikusten zen. Hau da, zein bere aldetik gai horiek lantzen zituen erakunde multzo bat izatetik, erakundeen artean nolabaiteko lotura sortu behar zela. Informazio asko dago eta primerako proiektu ugari, baina bakoitzak bere aldetik dihardu. Horrekin batera, beharrezkotzat jotzen da **formakuntzak garatzen lagunduko duten erakunde kolaboratzaileak** ekartzea. Kontuan izan beharko da batzuek eskarmentu handiagoa izango dutela klima-aldaketari lotutako gaietan, beste batzuek ekonomia zirkularrean, eta abar.

“Euskadin, jende eta erakunde ugari gaude ingurumen-hezkuntzaren arloan lanean. Nik ikusten dudana ezaugarri nagusia konexiorik eza da. (...). Informazio asko eta proiektu oso baliotsuak ditugu erakunde horietako batzuetan, baina ez dira bideratzen edo ez daude ikusgai herritar guztientzat (...) Lehenik eta behin, sareen sare bat eratu beharko genuke, sare asko ditugulako, baina herritarrek nukleo erreferente bat behar dute hari konektatu ahal izateko. Horregatik, oso argi utzi nahi izan dugu Boost proiektua ez dela gobernuaren proiektu bat soilik; aitzitik, proiektuarekin bat egin nahi duten erakundeen proiektu bat dela”.

(Elkarrizketa Mikel Ballesterosi)

6. Dagoen informazioa multzokatu eta infoekintzara bideratu behar da.

“Informazio asko dugu eta ematen diogu jendeari, gida ugari ditugu, material ugari. Baina jendearentzat, oro har, ezezagunak dira gehienak edo, besterik gabe, eskuratzeko oso zailak. Informazio gutxiago behar dugu, eta infoekintza handiagoa sarean. Adimen kolektiboa aprobetxatu”.

(Elkarrizketa Mikel Ballesterosi)

7. Ingurumenaren alderdia azpimarratu behar da. Elkarrizketetan, “urak bereizi” behar direla aipatzen da; hau da, ingurumen-gaiei dagokienez, eduki jakin batzuk azpimarratu behar direla. Adibidez, larrialdi klimatikoaz hitz egiten ari bagara, jakin behar da zer kausa dituen eta nola moztu daitezkeen. Elkartasuna, gizarteratzea, berdintasuna, etab.: ondo azalduta, lotu daitezkeen kontzeptuak dira. Baliteke ingurumen-hezkuntzak eta hezkuntza ekosozialak bat egitea, baina ez dira ezinbestean gauza bera.

“Ezin da jasangarritasunaz eta gizarte jasangarriaz hitz egin, horiek ingurumenaren aldagaiari lotu gabe. Jar dezagun hau guztia kakotx artean, baina 2030 Agendak kalte pixka bat egin digu; hau da, ingurumen-hezkuntzaren kontzeptua hutsaldu du (...) Hitz egiten da jasangarritasunerako hezkuntzaz, hezkuntza jasangarriaz, eta gutxi hitz egiten da ingurumen-hezkuntzaz (...) Larrialdi klimatikoaren aurrean, hezkuntza klimatikoaren kontzeptua ere nabarmendu behar dugu. Hori nire gogoeta pertsonala da”.

“Herritarrei orientabideak eman behar dizkiegu. Alegia, gure eremuan ingurumen-balioetan heziko ditugu, baina, jakina, badaude beste eremu batzuek kudeatutako balio ekosozialak ere, ingurumen-balio horiei berez lotuta daudenak edo leudekeenak”.

(Elkarrizketa Mikel Ballesterosi)

Alboanek ezin izan die elkarrizketarik egin Berritzegune Nagusiko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Esparruko ordezkari.

Egindako elkarrizketetatik eta proiektu batzuek azken ikasturtean izandako bilakaeraren analitika abiatuta, eratzten ari den testuinguruko zenbait arrisku eta aukera adierazi nahi ditugu.

Arriskuak

- Berritzegune Nagusian, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Esparruaren lanak antzekotasunak ditu, mandatuz eta ikuspegiz, Ingurugelakoarekin, baina ez du haren finantzaketarik edo autonomiarik, eta langile gutxiago ditu (15 kideko taldea zenak 7 kide ditu orain). Horrek objektiboki murrizten du ikastetxeei laguntza emateko gaitasuna.
- Bi espazioek (Hezkuntzaren mendekoa eta Ingurumenaren mendekoa) ez dute nahitaez ingurumen-hezkuntzako ikuspegi bera, eta formakuntzen helburuetan

Ingurugela bi sailen arteko zubia zen. Kezkagarria da hura desagertzea ez ote den izango ikastetxeei zuzendutako ekintza koherente eta koordinatuaren kalterako.

ere badira desberdintasunak. Logikoa da, sail bakoitzaren helburu nagusien ikuspegitik. Egitura berriarekin, ingurumena zuzenean lotzen zaie euskal ekonomiari eta ingurumenaren kudeaketari; hezkuntza, berriz, ikasleen osoko prestakuntzara bideratzen da. Ingurugela bi sailen arteko zubia zen. Kezkagarria da hura desagertzea ez ote den izango ikastetxeei zuzendutako ekintza koherente eta koordinatuaren kalterako.

- Ziurgabetasuna ikastetxeentzat. 2023/24 ikasturtean unibertsitatez kanpoko ikastetxeei dirulaguntzak emateko deialdia, Eskolako 2030 Agenda programa gara dezaten, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren kontura⁷⁰, 2023ko irailaren 12ko EHAAⁿ argitaratu zen, eta haren ebazpena, aldiz, 2024ko ekainaren 27ko EHAAⁿ, laguntza jasoz gero justifikatzeko zegoen azken egunean.

Aukerak

- Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Esparrua Berritzegune Nagusian sartzeak sinergiak sor ditzake Berritzeguneko beste esparru batzuekin, baldin eta barne-antolamenduko mekanismo batzuk ezartzen badira ekintza bateratua eta ikastetxeetan eragin handiagoa sustatzeko.
- 130/2022 Dekretuak eginkizun garrantzitsua aitortzen dio erakunde laguntzaileen parte-hartzeari⁷¹. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntzaren Alorrak hirugarren sektoreko hainbat erakunde deitu ditu, GGKEak barne, eta horien artean dago Alboan. Proiektuaren osaera- eta proposamen-une batzuetan egoteko aukera izan dugu, plataforma birtualaren proposamena taxutzeko. Beraz, osatze-bidean dagoen espazio bat da, eta eragiteko aukera ematen digu erakundeei. Horrekin batera, erakunde trebatzaile gisa parte hartzeak erakunde eta pertsona, ikastetxe eta irakasleekin kontaktatzeko aukerak ugaritu ditzake.

⁷⁰ Azken hauteskundearen ondoren, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Saila da.

⁷¹ ikus 12. artikulua.

3. Ondorioak eta gomendioak

Atal honi ekiteko, aurrekoaren ondorioari helduko diogu berriro, aldaketa garrantzitsu eta esanguratsuak izan baitira Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-hezkuntzako erakundeetan. Ingurumen-hezkuntzari lotutako erakundeak eta pertsonak puzzle instituzional berrian berriz kokatzeko ariketa bat egiten ari dira. Jarraian adierazten ditugun gomendioen helburua da Euskadiko ingurumen-hezkuntza justizia sozioanbientalari begira jartzeko erraztasunak ematea, orain non gauden kontuan hartuta. Gomendioen helburua ez da EAEko ingurumen-hezkuntzaren egungo instituzionaltasuna zalantzan jartzea, baizik eta gaur egungo aukera-eremuaren barruan justizia sozioanbientalaren ikuspegia sustatzea, aurreko atalean zirriborratutako deskribapena harturik oinarri.

Ez diogu garrantzirik kentzen hezkuntza ez-formalaren eta informalaren eremuari. Alboan ere uste dugu, guztion etxearen zaintzan aldaketa nabariak egon daitezen, herritar guztiak sartu behar direla tartean, eskoletatik eta ikastetxeetatik harago. Baina, dokumentu hau bezala, gomendioak ere hezkuntza formalaren eremuan zentratzen dira.

Norentzat dira gomendio hauek? Erakundeetako kideentzat, irakasle eta hezkuntza-komunitateentzat, eta hirugarren sektoreko erakunde eta eragileentzat. Gomendio guztiak ez dagozkio berdin erakunde eta pertsona guztiei, baina sektore bat baino gehiago lotzen zaio bakoitzari. Era berean, gomendioak adierazita, ez dugu pentsatzen erakunde eta pertsona guztiek gauza guztietan eta aldi berean parte har dezaketela. Instituzio eta hezkuntza-eragile bakoitzak ikusiko du, zein bere izaeraren eta aukeren arabera, non egin dezakeen ekarpen handiena.

Hezkuntza-sistemarekin lotutako gomendioak⁷²

1. Zubiak eraikitzea eta konfiantza-sareak sortzea esparru berri horretako instituzio, erakunde eta pertsonen artean. Ingurumen-hezkuntzari lotutako instituzionaltasun nagusiaren gaur egungo antolamendua zubi-gune bat (Ingurugela) haustetik sortu zen. Ikastetxeetara iristen diren proposamenen arteko koherentzia eta sinergia

⁷² Hezkuntza-sistema esanda, ez ditugu Hezkuntza Sailaren mendeko erakundeak soilik aipatzen (Berritzeguneak, esaterako), baizik eta baita beste administrazio batzuetatik (hala nola, Ingurumena) datozen hezkuntza-zentroen eta irakasleen pres-takuntzari lotutako hezkuntza-eskaintza ere.

lortu nahi bada, konfiantza eta elkarriketa-guneak landu beharko dira. Institutuzio-sare horretan zuzenean parte hartzen ez duten administrazio publikoko erakundeentzat eta hirugarren sektoreko erakundeentzat ere garrantzitsua da egoerari arreta jartzea, nola eboluzionatzen duen ikustea eta konfiantza eta elkarriketa sustatzen duten jarrerak izatea.

“Entzutea dagokigu, galdetzen joatea, eta non gauden aztertzea, baina oso leunki, eta sortu den puzzle eta mugimendu berri horretan non kokatzen garen ikusiz”.

(Mónica Fernández Vidali elkarriketa)

2. Gaur egun sistemaren barruan (hezkuntza-sistema eta besteak) **dauden palanka guztiak erabili eta aktibatzea.** Hona hemen espazio eta/edo palanka horietako batzuk:

- LOMLOE eta dekretu autonomikoa.
- Boost proiektua eta Berritzeko, Gaitzeko eta Ezagutza Kudeatzeko Zentroaren plataforma diseinatzeko guneak.
- Eskolako 2030 Agenda eta Tokiko 2030 Agenda.
- Berritzegune Nagusiaren Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Esparrua.
- Ingurumenaren osasunaren behatokia.
- Klima Aldaketaren Legeak jasotako herritarren batzarra.

Era berean, baliagarriak dira Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legearen 52. artikulua eta emisioak nahiz hondakinak murrizteko helburuen berrikuspena ere.

3. Justizia sozioanbientalaren ikuspegia duten erakundeen arteko lotuneak sustatzea, egoteko eta aurreko puntuko palankak aktibatzeko. Justizia sozioanbientalaren ikuspegia dugun erakunde guztiok ezin dugu espazio guztietan egon, eta gure parte-hartzea ez dute espazio guztiek aurreikusten ere. Palankak aktibatuko badira, gutxieneko indar bat izan behar dugu, mugimendu bat sortzeko adina. Hirugarren sektoretik zenbateko indarra egin dezakegun ikusteko gune interesgarri bat Euskadiko GGKE-en Koordinakundea da.

4. Ingurumen-hezkuntzaren arloan hirugarren sektorearen eta Hezkuntza Sailaren harremanetarako bideak aztertzea, bereziki, Berritzegune Nagusiko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Esparruarekin. Ingurugelekin harremanak izateko mekanismo eta bideek autonomia-maila handia zuten; gaur egun Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Esparruarekin erlazionatzeko moduen aldean, bestelakoak ziren. Proposamenak nola helaraz daitezkeen aztertzea gomendatzen da, eta sinergiak, osagarritasunak, lankidetzak eta abar nola ezar daitezkeen begiratzea.

5. Eragiteko hezkuntza sustatu, eta hezkuntzan eragitea. Ingurumen-hezkuntzaren aterkipean jarri ditugun hezkuntza-ikuspegiek, bai eta gizartea eraldatzeko hezkuntzak

edo herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzaileak ere, errealitatean esku hartzeko jarduerak garatzen dituzte guztiek. Ingurumen-hezkuntzaren funtsezko dimentsioetako bat da, hor adostasun zabala dago, eta ikusi ditugun ingurumen-hezkuntzako EAEko programa eta proposamenek barne hartzen dute. Haietan ere ageri da eragiteko hezkuntzaren osagaia, eta funtsezkoa iruditzen zaigu berau nabarmentzea, argi baitago eskola- eta udal-esparrutik harago eraldatu beharko dugula gizartea, ingurumenaren ikuspegitik eta alderdi sozialean bidezkoa izan dadin. Eskolan saiakuntzak egin daitezke, baina eremu hori gainditu behar dute. Horrekin batera, aurrez planteatu ditugun gomendioak ezartzeko, hirugarren sektoretik hezkuntzako instituzioetan eragiteko ekintzak egin behar dira, eta, batez ere, Hezkuntza Sailean eragiteko. GGKE-en Koordinakundea ildo hori lantzeko gune egokia izan liteke.

6. Biztanleria-sektore zabaletara iristeko estrategiak eta irismen txikiagoko estrategiak konbinatzea. Dokumentuan zehar, ohartu gara nolabait elkarren aurka doazela biztanle askorengana iristeko proposamenak eta irismen txikiagoko prozesu trinkoagoak dituztenak. Egokitzen jotzen dugu ingurumen-hezkuntzako proposamen batek, hezkuntza-sistema osoari euskarri eman nahi badio eta irakasleen prestakuntza barne hartuko badu, bi estrategiak biltzea. Sistemak kapilaritatea behar du, ingurumen-hezkuntzaren fluxua espazio gehiagotara hedatzeko aukerak behar ditu, proposamen beharbada apalagoetatik hasita. Era berean, proposamenen sakontasuna eta irismena gero eta handiagoa izatea behar du. Garrantzitsua da esperimendazioa alde batera ez uztea, eta gainerakoentzat erreferente izan daitezkeen ikastetxe eta hezkuntza-komunitateak izatea.

7. Irakasleen prestakuntza: proposamen praktikoak eta proposamen eraldatzaileak. Aurreko gomendioaren ildo beretik, irismen zabaleko proposamenak eta proposamen trinkoagoak uztartu behar dira. Beste behin ere, bi premia bateratu behar ditugu: alde batetik, irakasle ugariengana irits daitekeen prestakuntza erabilgarri, praktiko eta erraza eskaini behar da, baina, horrekin batera, baita abangoardia gustuko duten irakasleentzako proposamen eraldatzaileak ere. Izan ere, gauzak eraldatzeko, beren burua ere “eraldatu” behar dute irakasleek. Ezingo da bultzatu ikuspegi ekosozialik eta justizia sozioanbientalekorik, irakasleek ez badute ikuspegi hori ezagutzen eta partekatzen.

“Hezitzaileari, bere egunerokoan, eskolak emateaz gain egin behar duen beste guztiak eragiten dio gogait handiena. (...) Zerbait berria izan arren, eta ondo kontrolatzen ez badu ere, erabiltzen badu beharbada baliagarria izango zaio LOMLOEa egokitzeko, 2030 Agendan sar dezake... Hau da, gure proposamenaren baliagarritasuna saldu behar zaio, barkatu hitz hori erabiltzea. Erosotasuna, ez da hitzik onena ere... Eraginkortasuna, erabiltzeko erabakia har dezan. Irakasleok arazo bat dugu: segurura jotzen dugula, eta izugarri zaila dela gu gure toki erosoetatik ateratzea”.

“Lan-ildo bat egon beharko litzateke, musikan bezala, ganbera txikiko musikan: beharbada publiko zabalarentzat ez du orkestra sinfoniko batek duen zentzua, baina badu bere eragina, batez ere, biderkatzailea. Ahal den neurrian, aurrez aurreko estrategia berreskuratzea, talde txikietan. Agian ez dizu emango, zifrak esatean, “100

lagunengana iritsi da". Esaten baduzu "hamar lagunengana iritsi naiz", agian huskeria da, baina beharbada erabat motibatuta daude 10 lagun horiek eta 10ekin biderkatzen dute efektua, eta orduan 100ek adina eragiten dute. (...) Teknologiai aukera zoragarria eskaintzen digu, digitalizatzeko eta jende askorengana iristeko, askoz bizkorrago eta kostu askoz onargarriagoekin, baina orobat ikusi beharko genuke, gutxienez paraleloan, zer emaitza ematen digun denbora jakin batez probatzeak, dinamika zuzenago eta hurbilagoekin, gutxiago izan arren gero beren zirkuluetan palanka izan daitezkeen pertsonekin".

(Eduardo Ochoa de Aizpururi egindako elkarrizketaren aipuak biak)

8. Familiekin lan egitea. Familia funtsezko eragile hezitzailea da ikasleen bizitzan. Hezkuntza-proposamenak koherenteak izan daitezzen, oinarri-oinarrizkoa da ikastetxearen eta familien arteko komunikazioa, errespetua eta lankidetzaren sustatzea. Ikasleak prozesu horretan konplize izan daitezke, eta, aldi berean, beren familien hezitzaile bihurtu.

"Egia da gu gazteetan zentratuta gaudela, baina gai horietan parte garrantzitsua dira helduak ere. Izan ere, azkenean, hezkuntza gazteek bakarrik jasotzen badute eta helduek ez badute parte hartzen, askotan gertatzen den bezala, azkenean, gazteek biziki nahi izan arren, helduek ondo egiten ez badute, helduek egiten dutenari erreparatuko diote, helduek eman behar baitute eredu. Helduek gaizki egiten badute, gazteek bide berari jarraituko diote".

(Alex, Egibideko ikasleei egindako elkarrizketan)

Hezkuntza-proposamenen edukiarekin lotutako gomendioak

9. Hezkuntza ekosozializatzea eta amazonizatzea⁷³. Alboan ustez, pertsona ahulenak eta natura erdigunean jarriko dituen ikuspegi ekosozial batetik landu behar da aurrean dugun ingurumen- eta gizarte-krisiaren garrantzia, eta gure bizimoduak birpentsatu behar ditugu, solidarioagoak eta jasangarriagoak izan daitezzen. Ingurumen-hezkuntzak ez baditu kontuan hartzen ingurumen-krisiaren arrazoi sistemikoak, edo ingurumen-krisiak inpaktu desberdinak dituela pertsonengan eta Iparralde eta Hegoalde Globalean, partziala izango da, osatugabea.

Euskadin ingurumen-hezkuntzako eskaintzak ere amazonizatzeko gonbita egiten dugu. "Amazonizatu" delakoa neologismo bat da: "bihurtu zaitez Amazonia" esan nahi du, eta Amazoniaren, hango biomaren eta hango lurretako herri mehatxatuen defentsan parte hartzeko proposatzen du. Amazonia funtsezko bioma da gizadiarentzat, baina mehatxatuta dago, agronegozioak bultzatutako politika baten eta naturaren mugak errespetatzen ez dituzten garapen ekonomikoko proiektu handien zemaipen. Herri indigenak lekuz aldatzera

73 <https://www.humandehvelopment.va/es/news/2020/amazonizate-campagna-di-sensibilizzazione-e-cura-per-l-amazonia.html>

behartuak eta bortxatuak ari dira izaten. Hala ere, haien bizimodu jasangarriak milaka urtez zaindu du ingurugiroa, eta asko dugu historia horretatik ikasteko.

10. Konplikaziorik ez, konplexutasuna bai. Konplexutasuna da elkarri lotutako hainbat elementuz osatuta dagoenaren tasuna. Justizia sozioanbientalaren ikuspegiak begirada sistemikoa eta holistikoa eskatzen du; ingurumenaren eta gizartearen alderdiak erlazionatzen dituenek, begirada konplexua da. Konplexutasunak, ordea, ez du esan nahi “konplikazioa”. Ingurumen-hezkuntzaren eremua oso zabala da, gai asko jorratzen ditu eta ingurumenetik zein gizartetik eratorri eta adar asko ditu. Gure ustez, ingurumen-hezkuntzari lotutako edozein gaik har dezake (eta hartu behar du) gizakion ekomendekotasunari eta elkar-mendekotasunari buruzko gogoeta bat, eta hausnar dezake nork hartzen duen parte erabakietan eta nori eragiten dioten (demokrazia). Kontzeptu “handiak” dira, baina ez dira identifikatzeko eta/edo sartzeko zailak, proposamena garatzen dutenek ikuspegi bera badute.

Zailtasuna joera kontrakultural bateko gogoetak izatetik dator⁷⁴. Baina uste dugu, hain zuzen, naturaren eta giza harremanen gaineko begirada berri bat dela bidea. Edozein proposamen eta gairen inguruan hiru galdera egin ditzakegu:

- Hezkuntza-proposamenak naturaren gainetik jartzen du gizakia, haren “jabea” balitz bezala eta/edo naturaren gaineko erabateko kontrola balu bezala?
- Hezkuntza-proposamenak aintzat hartzen al ditu ingurumen-inpaktu desberdinak daudela, zer herrik eta nork sufritzen dituen?
- Hezkuntza-proposamenak hausnartzen al du erabakiak noren mesederako eta kalterako diren, eta non eta nork erabakitzen duen? Pertsonen bizimodu onean nolako eragin duen?

“Ura, airea eta lurzorua datozkit beti burura; edatea, arnasa hartzea, jatea... Oso teknologia gutxiko kontua izan daiteke nik janari on batez gozatu ahal izatea; gehien pozten nauena beste pertsona batzuekin egotea da, edo paseatu dezaket, oraingoz ez baitu dirurik kostatzen... (...) Ekologiaren esanahia da zure etxea eta nola funtzionatzen duen ezagutzea; ekonomiarena, berriz, hura kudeatzea. Zure etxea ezagutzen ez baduzu, nola kudeatuko duzu? Alderantziz jarri dute, engainatu egin gaituzte. Horrelako gogoetak oso sinpleak dira eta ez dute jakintza edo datu askoren beharrik”.

(Eduardo Ochoari elkarrizketa)

Metodologiekin lotutako gomendioak

11. Bitartekoa xedea ere bada: gaitasun ekosozialetik lan egitea. Ingurumen-hezkuntzako proposamen hezigarriaren helburua da ikasleak gai izan daitezela ingurumenari lotutako egoerak ulertzeko eta haietan jarduteko. Metodologia aktiboak

⁷⁴ Gutiérrez Bastidari egindako elkarrizketaren paragrafo bat hartu dugu horren erakusgarri. Eskatzen du: “trantsizio ekosozial bat egitea eta, bidean, ezaugarri hauek ordezkatzeko: individualismoa elkartasunarekin, hazkunde ekonomikoaren zentraltasuna bi-zi-sarearen zentraltasunarekin, pobrezia eta gosea aberastasuna berdintasunez banatzearekin, bidegabekeria sozialak ekitatearekin, energia fosilak berriztagarriekin, kontsumismoa deshazkundearekin, globalitarismo kulturala kultura-aniztasunarekin, lehiakortasuna lankidetzarekin, eta abar”.

hasieratik dira ingurumen-hezkuntzaren parte, eraginkortasunagatik eta koherentziagatik. Ikuspegi ekosozialetik, koherentziak partaidetzari lotutako metodologia aktiboak ere eskatzen ditu.

Gaitasunetan oinarritutako lanean, ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak sartzen dira (jakitea, egiten jakitea eta izatea). Gaitasun ekosoziala lantzeko, aurreko gomendioetan aipatu ditugun edukiak lantzeaz gain, errealitatean esku hartzen ikasi behar da, eta naturaren eta giza eskubideen alde lan egiten duten herritarrak bihurtzea eskatzen du horrek.

“Nik triada honetan ikusten dut: sentsibilizazioa, kontzientziazioa, ezagutza. Garrantzitsua da interesa eta sentsibilitatea sortzea, eta tresnak ematea, bai ulertzeko, bai errealitatean eragiteko. Kontua ez da edukiak ematea soilik: aintzat hartu behar dira eremu horretan lanean ari diren pertsonak, jakin behar da indarrak non jartzen ari diren, zer kezka dituzten eta zer-nolako proposamenak egiten ari diren. Eta, bestetik, garrantzitsua da barne-mailan eragitea, erakundeetan, instituzioetan, eta abarretan, eta gure lankideengan nola eragin daitekeen jakitea, hezkuntza-prozesuak bultzatu ahal izateko eta erabilgarriak eta egokiak izan daitezen. Tresnak ematea, jendearengan txinparta hori pizten dugun bitartean, gai horretaz kezkatu eta ardura daitezen, haiekin ere zerikusia baitu”.

(Mónica Fernández Vidali elkarrizketa)

12. Zuzeneko harremana errealitate hurbilenarekin; geografikoki urrunago dauden errealitateei buruzko testigantzak eta bizipenak; emozioak erlazionatzea. Sentitzea, esperimintatzea, jardutea. Edozein gaitasun garatzeak eraldaketa pertsonal bat dakar berekin. Gaitasun ekosozialari dagokionez, eraldaketa sakona sustatzen da, eta oraindik ere nahiko kontrakulturalak diren elementu batzuk ditu. Zaila da eraldaketa hori gertatzea batik bat datuetatik abiatzen bagara: errealitatearekin kontaktu ahalik eta zuzenena izatea eskatzen du⁷⁵.

“Ingurumenaren hankarekin soilik bagoaz, ez dugu aurrera egingo. Gakoa gizartean dago ekologian baino gehiago, ohitura, balio eta kontzientziazio kontu bat delako. Eta ingurumenaren kudeaketa arrazionaletik harago doa hori (...). Nire ikuspuntutik, pragmatikoa eta eraginkorra izan nahian, ekosozialak izan behar dugu. Ez dugu besterik. Konbentzimenduekin nahiz gabe, ondorio horretara iritsiko gara. Galdera da: nork ordainduko ditu honen guztiaren plater hautsiak?”

(Eduardo Ochoari elkarrizketa)

“Irudi bat erakustea baino, hobe da zaborrez betetako leku batera eramatea eta esatea: ‘kontatu eta hartu’, arazoa zenbaterainokoa den ikus dezaten”.

(Nerea, Egibideko ikasleei egindako elkarrizketan)

75 GGKE-entzako gomendioen atalean, gomendio gehiago zehazten dira geografikoki urrutien dauden errealitateak ikaste-txeetara eta ikasleengana gerturatzeke.

“Garrantzitsuena da jendeak zuzenean ezagutzea hizpide ditugun errealitate hauek, batez ere hurbilenak, eta ez beste batzuen bitartez, hau da, erreferentziei esker. (...) Garrantzitsua iruditzen zait pertsona horiek zuzenean hurbiltzea hezkuntza-guneetara: sentsibilizazio handiagoa sortzen laguntzen duela uste dut”.

“Hori praktikara eramatea, jantokian beharbada, edo eskolaz kanpoko zerbaitetan... Arrotza dirudien hori hurbiltzea, itxuraz landa-eremuren batean gertatzen den hori gure hiriko bizitzara hurbiltzea. (...) Errealitate hori hiriguneetara eramanez ahal izateko materialak eta trukeak sortzea”.

(Adelaida González Menéndez egindako elkarrizketako aipuak biak)

13. Ikasleen protagonismoa, ikuspegi ekosozialarekiko koherentziagatik eta proposamenean inpaktua bilatzeko. Eta, inpaktu diogunean, ez gara ikasleak une horretan egiten ari diren jardura zehatzaren inpaktuaz soilik ari: ikasleengan duen inpaktu eraldatzaileaz ere ari gara.

“Parte hartuz ikasten da parte hartzen. (...) Neska-mutilek horrekin ikasi dutena eta hazi direna ezin da baztertu (...). Konfiantza dut eta badakit ondo egingo dutela. Gero baliteke batzuek bikain egitea, baina ondo aterako dela, hori ez dut zalantzan jartzen. Prozesuak ahaldundu egiten dituelako. Erabat ahaldunduta etorriko dira”.

(José Manuel Gutiérrez Bastidari elkarrizketa, CONFINTi buruz ari dela).

“Protagonismoa ikasleei emateko beldurra galtzera animatuko nituzke irakasleak. Gehiago hurbildu daitezela ikasleen interes eta kezketara, eta tokian-tokian nahiz mundu osoan bizi ditugun arazo ekosozialekin lotu ditzatela. Eta ikasleek iker dezatela, eztabaida dezatela, ideiak truka ditzatela eta espiritu kritikoa gara dezatela, proposamenak egin eta abian jar ditzatela...”.

(José Manuel Gutiérrez Bastidari elkarrizketa)

Gomendioak Alboanentzat eta GGKE-entzat

14. Lankidetzarekin lotura handiena duten erakundeek adierazi digutenez, oso garrantzitsua da **bistatik ez galtzea Alboanen eta GGKE-en espezifikotasuna,** tokikoa eta mundukoa bateratzen dituen ikuspegia, eta Hegoalde Globaleko errealitate eta ahotsen bitartez logika kolonialak hausten dituzten ikuspuntuak hurbiltzeko gaitasuna.

“Nire ustez, gaitasun ekosoziala hezkuntza eraldatzaile global horrekin osatu behar da. Hezkuntzak eraldaketa-agente bihurtu behar ditu subjektuak. Banakoak nahiz taldeak, nahi duzun ordenan”.

(Eduardo Ochoa de Aizpururi elkarrizketa)

"Amazonian zuekin lan egiten duten kolektiboak. Egiten ari zareten analisiari beti gainjarririk behar zaio pertsona edo kolektibo horien ikuspegia, gure logikak apurtzeko, batzuetan kolonialak baitira".

(Mónica Fernández Vidali elkarrizketa)

"Gerta liteke mahai batean baserritar bat eta kolonbiar nekazari bat esertzea. Jakina, egoerak oso muturrekoak dira, baina bada oinarri komun bat: sistema, elikadura, nola merkaturatzen diren elikagaiak eta nola eragiten duten haietako bakoitzean. Nola, egoera oso desberdinetan egonik (...), borroka bera duten biek, hau da, ekoizpen-eredu jasangarrien aldeko apustua. (...) Nekazaritza-ekoizpen ekologikoa gero eta handiagoa izatearen alde egitea, (...) horrek sortzen baitu benetan bizi-eremua lurraldeetan, hau da, nekazariak, baserritarrak, ekoizle txiki eta ertainek. Hor badago beste kontu bat ere: nola hausten duzun landa-eremuaren eta hiri-eremuaren artean sortu den hesia. Hierarkia hori, landakoa hirikoa baino atzeratuagoa dela diona, eta hirikoa dela modernoa, freskoa".

(Adelaida González Menéndez elkarrizketa)

15.Proposamenak hezur eta haragi bihurtzea. Datuetatik haratago, errealitateak aurpegiak ditu. Alboanen moduko GGKE-ek zuzenean ezagutzen dituzte gatazka ekosozialen ondoriozko arazoak sufritzen dituzten hezur-haragizko pertsonak. Nola edo hala, ikasgeletara iritsi behar dira pertsona horiek eta bizi dituzten egoerak, ikasleek ikasitakoa esanahia eduki dezan.

"Noaga 10 urteko neska bat zen, eta, haren berri ematen zuen materialaren arabera, duela zenbait urte Burkina Fason bizi zen. Eskolara joan aurretik, kilometro batzuk egin behar izaten zituen ur bila joateko. Ez zait inoiz ahaztu Noaga. Zuek Noaga asko ezagutzen dituzue, eta eskolara hurbildu ditzakezue".

(José Manuel Gutiérrez Bastidari elkarrizketa)

16.Itxaropenetik eta itxaropenerako hezteak. Itxaropenaren premisak dira ez dakigula zer gertatuko den eta ziurgabetasun zabal horretan badagoela zer eginik. Ziurgabetasuna aitortzen denean, emaitzetan eragin daitekeela ere onartzen da. Egiten duguna garrantzitsua dela sinestea da, nahiz eta ezin beti ziur aurreikusi zenbat, nola, noiz eta zeri edo nori eragingo dion. Onartu behar dugu gure oraingo ekintzekin, edo huts egiteekin, sortzen ari garela etorkizuna⁷⁶. Baina ziurgabetasun horren barruan, baditugu ekintza kolektiboak funtziona dezakeela dioten istorioak ere.

"Ziurrenik, ezagutzen dituzue oztupoan geratu diren istorioak, porrotean amaitu dutenak... baina baita zoriontsu amaitu diren istorioak ere. Neska-mutilek jakin behar dute zerk funtzionatu duen. Krisi ekosozialaren barruan sartu behar ditugu, baina

⁷⁶ Rebecca Solnit, Diego Aretzek elkarrizketatua, 2024ko martxoaren 24an. Hemen kontsultatu daiteke: <https://blogs.elespec-tador.com/actualidad/las-palabras-y-las-cosas/la-esperanza-imperativo-moral-rebecca-solnit/>

itxaropen-leihoak eman behar dizkiegu. Ongi funtzionatu duten esperientziak erakutsiz, itxaropen-leiho ugari ireki ditzakezue zuek”.

(José Manuel Gutiérrez Bastidari elkarrizketa)

“Aldaketa ez da jendeak gehiago jakitea edo sentsibilizatuago egotea. Beharrezkoa da, baina ez da helburua. Aldaketarako gaitasuna piztu behar dugu, zeinek bere erantzukizunekin, bainaugar hori pizten joan behar dugu, eta itzal ez dadila lortu. (...) Eraldaketa bilatuz beti, eta nabarmenduz erakunde asko ari direla etsi gabe eusten, planetako eremu jakin batzuen suntsipena geldiarazten. (...) Itxaropena emateko eta talde-lanean oinarrituta”.

(Mónica Fernández Vidali elkarrizketa)

17. Hezkuntza-administrazioetik datozen proposamenei ekarpenak egitea eta haiek osatzea. GGKE-ok ekarpen garrantzitsuak ditugu ingurumen-hezkuntzari egiteko. Alboan kasuan, justizia sozioanbientalaren ikuspegi batean kokatzen da ekarpen hori. Erakunde gisa, tokian tokiko eta mundu osoko begirada sendoa ekar diezaiokegu justizia sozioanbientalaren ikuspegiari. Zergatik? Gure lana zuzenean dagoelako Hegoalde Globaleko gatazka sozioanbientalekin lotuta eta gure Iparralde Globaleko gatazka sozioanbientalekin konektatuta.

“Hirugarren sektoreak giltzadura-funtzio bat betetzen du, askotariko kolektiboak, ahulenak eta pribilegiadunak konektatzen ditu. Beraz, kontua da nola sortu kontzientziazio- eta truke-espazio dinamikoak. Eta gauza zehatzetara, kasu honetan jardunbide zehatzetara, iristen laguntzea”.

(Adelaida González Menéndez elkarrizketa)

“GKE baten lana administrazioaren lanaren osagarri da. Administrazioaren irismenak bere mugak dauzka. Nik publiko objektibo bat daukat, eta horretara iritsi naiteke. Gobernuaren barne-tresnen bidez jende gehiagorengana iritsi ezin banaiz, zuek badituzue herritarrekin erlazionatzeko tresna indartsu batzuk. Guk ez dugu halakorik erabili eta ez dugu horretan eskarmenturik. Eta, horrez gain, baduzue gurea bakarrik ez den jarduera-eremu bat. (...) Badituzue konexio, estrategia eta lan egiteko modu batzuk, eta horiek jarri behar dira hor. Oso garrantzitsua da zuek hor egotea⁷⁷, batez ere, erabakiak hartzeko.

(Elkarrizketa Mikel Ballesterosi)

“Zer ikasi dugu proposamen horietatik (GGKE-enak)? Ziurrenik, ingurumen-hezkuntzako proposamenek baino gehiago eta hobeto integratzen dute ikuspegi ekosoziala. Beti egin izan da guztia sartzearen aldeko apustua, baina ez dut ukatuko han geunden profesionalek bagenuela joera bat, naturalistagoa. Bai, jorratzen genuen, baina inola ere ez GKE-ek besteko sakontasunarekin, interesarekin, zorrotasunarekin. (...) esango nuke, hasiera-hasieratik, jakin gabe, jada bazenutela ikuspegi ekosozial hori”.

(José Manuel Gutiérrez Bastidari elkarrizketa)

77 Ingurumeneko Boost proiektuari buruz ari da.

“Lurralde batzuetan jendea masiboki lekualdatu beharrean dago ingurumen-gaien ondorioz, esaterako, enpresa transnazionalen presioengatik, eta Alboan hor dago. Zuek zuzenean jakin dezakezue zergatik joan behar duen jendeak, eta uste dugu ekarpen garrantzitsua dela Euskadiko beste gizarte-erakunde edo hezkuntza-eragile batzuekin ezagutza horretaz hitz egitea (...) Alboanek zubiak eta loturak sor ditzake, begirada globala eta analisi kritikoa ekarri, Euskadiko ingurumen-erakundeek ikuspegi zabalagoa izan dezaten”.

(Mónica Fernández Vidali elkarrizketa)



I. Eranskina: Elkarrizketatutako Pertsonak

José Manuel Gutiérrez Bastida

Maisua, ingurumen-hezkuntzan aditua. Hamaika urtez jardun zuen ingurumen-hezkuntzako Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroan; horietako zortzi, zuzendari pedagogiko gisa. Ondoren, ingurumen-hezkuntzako aholkulari pedagogikoa izan zen Bilboko Ingurugelan, 2023ra arte. Hainbat prozesutan parte hartu du: IRAES 21eko (Euskadiko eskola jasangarrien sarea) koordinatzaileetako bat izan zen, Estatuko CONFINTeko kidea, Gazteen Europako Konferentziako Batzorde Pedagogikoko kidea, ESenREdeko (Estatuko eskola jasangarrien sarea) kidea, WEEC sarearen koordinatzailea, hainbat aldizkaritako ebaluatzaile taldeko kide, #EA26 sareko kidea, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Planaren (PAEAS) unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-taldeko koordinatzailea, etab. Hezkuntza-eta ingurumen-gaiei buruzko 80 argitalpen, txosten eta artikulu baino gehiago atera ditu argitara, eta gehienak haren blogean aurki daitezke <https://educacionecosocial.com>.

Mikel Ballesteros García

Hezkuntza Zientzietako graduondokoa du (EHU/UPV), Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna da (EHU/UPV), eta Kimika Industrialeko ingeniari teknikoa (EHU/UPV). Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzan lanean aritu da 36 urtez, ingurumenaren kontrolarekin, gaikuntzarekin, prestakuntzarekin eta kudeaketarekin lotutako hainbat erantzukizun-arlotan. 2002tik Europako IMPEL sareko kidea eta EAEko ordezkaria da. IMPEL (European Union Network for the Implementation and Enforcement of Environmental Law) Europar Batasuneko ingurumen-agintariak biltzen dituen nazioarteko elkarte da. Azken lau urteetan, ingurumeneko eta informazio-sistemako aholkulari senior gisa aritu da ingurumen-hezkuntzaren arloan, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza bultzatzearekin lotutako hainbat proiektutan, besteak beste, Boost proiektuan.

Eduardo Ochoa de Aspuru Gutiérrez

Biologia Zientzietan doktorea da, Arriskuen Prebentzioko goi-mailako teknikaria, eta Ingurumeneko koordinatzailea Gasteizko Egibide ikastetxean. LHko goi-mailako bi heziketa-ziklotan dabil irakasle: Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola, eta Analisisiko eta Kalitate

Kontroleko Laborategia. Irakasle-lanetan 30 urte baino gehiago daramatza, eta haietatik 25 eskaini dizkio ingurumenaren kudeaketari eta jasangarritasunerako hezkuntzari. Eskuarki, erakunde publikoekin eta hainbat komunikabiderekin lan egiten du.

Mónica Fernández Vidal

Hogei urte baino gehiago daramatza lankidetzaren eta elkartasunaren munduari lotuta. Hezkuntzaren inguruko GGKE-en sektorean hasi zen lanean, eta, 2014tik, lankidetzako teknikaria da eLankidetzan, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzian. Azken urte hauetan, besteak beste, ardatz hauek ditu eLankidetzan egiten duen lanak: gizartea eraldatzeko hezkuntza-proiektuak gainbegiratzea, (H)abian 2030-Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiaren jarraipen-batzordea gidatzea, eta estrategia sustatzea. Hezkuntzak herritar kritikoak sortu behar dituela defendatzen eta sustatzen du: justiziaren alde egin, aniztasuna ospatu eta bizitzen jasangarritasuna, ekitatea eta elkartasuna sustatuko dituzten munduko herritarrek.

Adelaida González Menéndez

Eskarmentu luzea du gizarte-erakundeak lagundu, aholkatu, trebatu eta sentsibilizatzen. Batez ere emakumeen, emakume indigenen eta feministen erakundeekin lan egin du, askotariko proiektuak garatzen: besteak beste, ekonomia feminista, generoan oinarritutako indarkeriaren prebentzioa eta laguntza, eta emakumeen eskubideen defentsa. Gainera, nekazarien eta indigenen erakundeekin lan egin du ekoizpeneko eta elikadura-subiranotasunerako proiektuak sustatzen eta eskubide ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak defendatuz, bai eta herrien eskubide kolektiboen alde ere. 2022tik, Bizkaiko EHNE aritu da lanean, arlo hauetan proiektuak kudeatzen: landa-garapena, gizartea eraldatzeko hezkuntza, agroekologia eta nekazarien feminismoa – ekofeminismoa.

Xenia Lacalzada Prusilla, Álex Pérez Márquez eta Nerea Borrachero Lazcano.

Ingurumen Hezkuntza eta Kontroleko Goi-Mailako LHko ikasleak dira, Egibiden. 2023/24 ikasturtean, “Agua para la vida” proiektuan parte hartu zuten. Elkarrizketa-proposamen bat izan zen, Euskadi eta Santa Rosa de Tapiasen artekoa (Kolonbiako Valle del Cauca departamentuan), uraren kudeaketa komunitarioari ingurumen-hezkuntzatik heltzeko. Ikasle hauek elkarrizketa-proposamenean parte hartu zuten. Haiekin batera izan ziren graduiko irakasleak, Nekazarien Institutu Nagusiko (IMCA) gizarte-sustapeneko taldea, Ura Kudeatzen duten Erakunde Komunitarioen Federazioa (FECOSER), Acuatapias-en Administrazio Batzarra, komunitateak, emakume eta gazte nekazariak eta yanakuna indigenak, eta Alboaneko taldea.

II. Eranskina: Elkarrizketetarako jarraibide orokorra

Elkarrizketa honen bidez, alderdi hauei buruz zer iritzi duzun jakin nahi dugu:

1. Ingurumen-hezkuntzaren edo jasangarritasunerako hezkuntzaren egungo egoera Euskadin.
2. Zer elementu bultzatu, aldatu eta txertatu beharko liratekeen, Euskadirako egungo ingurumen-hezkuntzako proposamenaren barruan, hezkuntza ekosozialeko eredu baterantz egiteko.
3. Zer izan litekeen Alboanen moduko erakunde baten rola eta ekarpena Euskadin hezkuntza sozioanbientala sustatzeko.

Jarraian, bloke bakoitzeko galdera batzuk aurkezten dira.

Ingurumen-hezkuntzaren bilakaera historikoa eta egungo egoera Euskadin

1. Mesedez, aurkeztu zure burua eta kontatu labur-labur zein den zure harremana eta/edo zure ibilbide profesionala Euskadiko ingurumen-hezkuntzaren esparruan.
2. Nola deskribatuko zenuke ingurumen-hezkuntzak EAEn izan duen bilakaera? Esango al diguzu, esaldi batean, bilakaera horren ezaugarri nagusia zein den? Esango al diguzu, esaldi batean, gaur non gauden?
3. Zein dira, zure ustez, EAEko ingurumen-hezkuntzaren proposamenaren indargune eta ahulezia nagusiak gaur egun?

Nola jo hezkuntza ekosozialeko eredu baterantz EAEn

4. Zer kontzeptu duzu gertuko edo gogoko: ingurumen-hezkuntza, jasangarritasunerako hezkuntza, hezkuntza ekosoziala... Zergatik?
5. Zein kontzeptu da egokiena Euskadin une honetan planteatzen ari den hezkuntza mota deskribatzeko? Eta zein izango litzateke egokiena hezkuntza ideala ezaugarritzeko?

6. EAEn horrelako proposamenik dugula uste duzu? Zein?
7. Zein dira hezkuntza ekosozialerantz jotzeko zailtasun nagusiak?
 - a. Hezkuntza-sistema orokorrari dagokionez:
 - b. Ikastetxeei dagokienez:
 - c. Irakasleei dagokienez:
 - d. Besterik?
8. Eta zein dira aukera nagusiak?
9. Zer gomendio egingo zenituzke maila bakoitzean (sistema, ikastetxea, ikasgela) proposamen ekosozialetarantz jotzeko?

Alboanek izan lezakeen rola eta egin lezakeen ekarpena

10. Ezagutzen al duzu GGKE-ekin egindako hezkuntza sozioanbientala edo ekosozialeko lan esperientziarik? Zein(tzuk)?
11. Zer ezaugarri ditu, zure ustez, GGKE-ek arlo horretan egindako ekarpenak?
12. GGKE-ok justizia sozioanbientalaren sustapenean eginkizunik dugula edo izan behar dugula uste duzu? Zein?
13. Alde horretatik, zer eskatuko zenieke Alboanen moduko GGKE-ei? Eta zer gomendio egingo zeniguke?



III. Eranskina:

Dokumentuan erabilitako sigla eta akronimoak

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

SESZ: Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroa

IIHII: Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia

CONAMA: Ingurumen Biltzar Nazionala

CONFINT: Estatuko Gazteen Konferentzia: Zaindu Dezagun Planeta

IH: ingurumen-hezkuntza

GJH: garapen jasangarrirako hezkuntza

HE: hezkuntza ekosoziala

EJH: etorkizun jasangarrirako hezkuntza

JH: jasangarritasunerako hezkuntza

GEH: gizartea eraldatzeko hezkuntza

HGHE: herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea

JSA: justizia sozioanbientala

LD: Laudate Deum erregu apostolikoa

LOMLOE: abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa

GGKE: garapenerako gobernuz kanpoko erakundea

NBIP: Nazio Batuen Ingurumen Programa (UNEP ingelesez)

UICN: Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasuna

UNESCO: Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea

WWF: World Wildlife Fund (ingelesez)





alboan
ONG · JESUITA · FUNDAZIOA

AMAZONIA GARA